

Kultura

Irune Gurtubaik ekoitziriko 'Pikadero' filma
emango dute asteburuan, Elorrion > 15



Motor mundua Uriendarren pasio

Motor mundua barru-barrutik bizi dute Pedro eta Igor Urienek. Hamaika abentura bizita, beste hainbeste bizitzeko prest daude. Elkarrekin, beti ere. Hutsetik hasitako prototipoan lanean aurkitu ditugu. > 12-13

Lehior Elorriaga

Tokiko ekoizpena eta kontsumoa sustatu gura ditu Zornotzako Iraunkor elkarteak

Zornotzan, garapen iraunkorraren eredua lantzeko helburuagaz, Iraunkor elkarteak sortu dute. Euskal Herria enparantzan du lokala. Tokiko ekoizpenaren eta kontsumoaren inguruko estrategiak bultzatzeko eta aurrera eramateko egingo dute lan. Elikagaietan, energia arloan... zornotzarrek egindakoa Zornotzan kontsumituko duen komunitate iraunkor bat bilatzen dute. > 4

“La cuadri del hospi lako elkarteek lana garrantzitsua da beldurrak uxatzeko” > 10

I. Astigarraga eta S. García-Obregón I
Biocruceseko kideak



Antso Estegiz, 1 DURANGO - Tel.: 946 216 491



Durango > 2

Bonbardaketaren aztarnak
zinemetan emango dituzte

Durango > 3

Etxegabetzeak saihesteko
protokoloa adostu du udalak

Iurreta > 7

Biblioteka sei hilabetez itxiko
dute, espazioa berrantolatzeko

Zaldibar > 9

Udal Kutxari 180.000 euro
buelatu beharko dizkio udalak

> Herririk herri

Bonbardaketaren aztarnak zinemetan erakutsiko dituzte

Faxisten bombardaketaren biktimak gogoratuko dituzte, 79. urtemugan

DURANGO M.O.

1937ko martxoaren 31n, Durango eta inguruak bonbardatzen hasi ziren faxistak, Italiako Aviazione Legionariaren hegazkinekin. Egun gutxiren buruan, 330 hildakotik gora eragin zituzten, eta Durangoko eraikin ugari suntsitu ere bai. 79. urtemuga beteko da aurten, eta Gerediaga elkarteak eta udalak gertakari haiek gogoratzeko ekintzak antolatu dituzte, “oroimen hori bizirik mantentzeko asmoz”, Aitziber Irigoras alkatearen esanetan. Nobedade lez, bombardaketak utzitako aztarnak zinemetan erakutsiko dituzte.

Gerediaga elkarteak bisita gidatuak antolatzen ditu bombardaketaren eraginez informatzeko, eta hor kontatzen dutena zazpi minutuko bideo labur baten batu dute. Bada, Durango

ko Zugaza zineman, Elorrioko Arriolan eta Berrizko kultur etxean proiektatuko dute bideoa, programatuta dauden pelikulen aurretik. Zugazan eta Arriolan hurrengo asteburu bietan (24tik 27ra eta 31tik 3ra) eskainiko dute bideoa, eta Berrizen apirilaren 8ko asteburuan. Gainera, apirilean Durangoko Sorginola gaztetxean eta Sapuetxen ere ikusi ahalko da.

Aztarnak zuzenean ezagutu gura dituztenek aukera bi edukiko dituzte: apirilaren 2an,

Durangoko Zugaza zineman, Elorrioko Arriolan eta Berrizko kultur etxean proiektatuko dute bideoa

17:30ean (gaztelaniaz) eta 3an 11:30ean (euskaraz). Bisitak doakoak dira, baina izena ematea eskatu dute 94 681 80 66 telefonon edo gerediaga@gerediaga.eus helbidean.

Errefuxiatuak berba

Martxoaren 31n, 12:00etan, Gerra Zibilaren biktimei omenaldia egingo diete hilerrian. 20:00etan, bombardaketan hildakoak izango dituzte gogoan Gerediagak eta Kriskitinek. Erasoaren lekuko batek lore eskaintza egingo du, eta Yoko Out musika talde durangarrak Xabier Amurizak eta Ander Ertzi-llak sortutako abestia joko du.

Bestalde, orduko eta gaurko gerretan errefuxiatuek bizi duten egoera aztertuko dute mahai-inguru batean, apirilaren 1ean.



laz Andra Marin eginiko oroimen ekitaldia. Gerediaga artxiboa.



Gerediagako Jon Irazabal eta Irigoras alkatea, prentsarako aurkezpenean.

50 durangar, nagusiei konpainia egiten ari dira

Lagunkide programara batzeko deia egin dute



Mari Feli Lopez eta Trinidad Rosas, Lagunkide programaren aurkezpenean.

DURANGO M.O.

Durangoko Udalak eta Gurutze Gorriak Lagunkide programa garatzen dute, bakarrik bizi diren nagusiei laguntza eman eta konpainia egiteko. Uneotan, 50 boluntariok parte hartzen dute, beste horrenbeste nagusiren babesle gisa. Mari Feli Lopezek, adibidez, Trinidad Rosasi laguntzen dio. Barikuetan elkartzen dira, ordu pare batez, paseotxo bat eman eta kafe bat hartzeko. “Mari Feli lagun ona da”, esan du bakarrik bizi den Trinidad-ek. Beraz, bere bizitzan bakardadeari aurre egiten dio Mari Feliri eskerrak.

Herriarrei programan parte hartzeko deia egin diete ardura-dunek. Animatuz gero, 94 681 09 49 (Gurutze Gorria) telefonora deitzea eskatu dute.

Durangoko Pasiñoa Bilbon erakutsiko dute

Eguaztenean, Bilbon egongo dira 55 durangar

DURANGO M.O.

Lehenengo aldiz, Pasiñoak Durangoko mugak zeharkatuko ditu, aurten. Izan ere, Bilboko prozesioa antolatzen dutenek antzezle durangarrak gonbidatu dituzte, eta horrela, datorren eguaztenean, 55 lagunek Bilboko Alde Zaharrean erakutsiko dute Durangoko Pasiñoa.

Normalean, eguaztenetik barikura izaten da Pasiñoa, Santa Ana plazan, baina eguaztenean Bilbora doazenez, lehenengo funtzioa martitzenera aurre-

ratu dute Juan de Iciar elkarte kulturaleko antolatzaileek. 21:00etan hasiko dira funtzioak, eta sarrerak 6 eurotan egongo dira salgai, Arco tabernan.

Ama-semeak

Xabier Arana organista izango da Pasiñoako zuzendaria. Jesusen papera Jon Iraurgik beteko du, eta bitxikeria lez, bere amak egingo du amabirjinarena, Ines Asategik, hain zuzen. Gainera, Judasen azalean anaia sartuko da, Egoitz Iraurgi.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko martxoaren 18a
14. urtea - 625. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia
eta Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urtiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Maialen Zuazubiskar
Gallastegi eta Paul
Bustindui Revuelta.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aukera Azoka hasiko da, gaur, Landakon

19 komertziok beherapenak eskainiko dituzte

DURANGO M.O.

Dendak Bai elkarteak antolatuta, XI. Aukera Azoka hasiko da, gaur, Landako Gunean. 19 komertziok eskainiko dituzte beherapenak, aurtan eta aurreko denboraldietan soberan geratutako produktuetan. Milaka lagun batzea espero dute, gaurtik domekara bitartean.

Azokaren aurkezpenean, Inma Bardezi eta Javi Arrieta egon ziren, Bardezi eta Sylke

arropa dendetakoak, hurrenez hurren. Bardezik gogoratu zuen negu beroa egin duela, eta horregatik, arropa dendetan “saso gaitza” izan dela. Ondorioz, aurtengo arropari dagokionez, “nahi baino gehiago” geratzen zaiela azaldu zuen Arrietak. Arropa bezala, beherapen handiekin lortu ahalko dira beste hainbat produktu ere, eta zozketak egingo dituzte, gainera.



Iazko Aukera Azokan 12.000 lagun batu ziren.



Astelehenean, protokoloa aurkeztu zuten lau alderdiek, martitzeneko osoko bilkuran onartu aurretik.

Etxegabetzeak saihesteko, udalak martxan du protokoloa

Udalak elkarlana bilatuko du banketxeekin, etxegabetzeak saihesteko asmoz

DURANGO M.O.

Etxegabetzeak geratzeko pauso garrantzitsu bat eman du udalak: protokolo bat ipini du martxan. PPK izan ezik, alderdi guztiek babestu dute bilkuran. Aldeko horiek batera aurkeztu dute protokoloa.

Lehenik eta behin, banketxeekin berba egingo du udalak, protokoloaren berri eman eta elkarlana bilatzeko. Etxegabetze prozeduraren bat martxan

badago, eteteko eskatuko die, eta prozesu bat martxan ipini orduko abisatzeko ere bai. Aurrerantzean, protokoloa errespetatzen duten erakundeak hautatuko ditu bere jardun ekonomikorako.

Bestalde, aginduen berri ematea eskatuko dio udalak epaitegiari. Etxegabetze bat sufritzeko arriskuan dauden herritarrei informazioa, laguntza eta aholkularitza juridikoa eskainiko dizkie. Beharrezkoa

bada, banketxeagaz konponbide bat topatzeko negoziatuko du.

Udalak ez du parte hartuko balizko kaleratzeetan. Kalera-tzea emana badago, Etxebideko alokairuko etxe bat lortuko diote herritarrari, eta larrialdiko egoera bada, udaleko larrialdietako etxe batean kokatuko dute.

“Fede oneko” kasuetan soilik aplikatuko dute protokoloa, errekurtsorik barik geratu, eta iruzurrik egin ez dutenekin.

Bizkaibusek geraleku berri bat edukiko du Tabira auzoan

EH Bilduk plazaratu du ekimena, eta Aldundiak baiezkua eman dio udalari

DURANGO M.O.

Bilbotik Mañarira doan autobusa Tabiran ere geratuko da, las-ter. EH Bilduk eraman du proposamena osoko bilkurara, eta Pilar Ríos alkateordeak (PSE-EE) azaldu du Aldundiagaz tratuan egon direla dagoeneko.

Riosen arabera, mozioa bozeramaileen batzordean aurkeztu zenean, Aldundira jo zuten udal gobernukoek, eta Aldundikoek baiezkua eman diete. Beraz, geraleku berria non ipini erabaki beharko da orain. Seguruenik, Arriluzea kalean ezarriko dute.

Horrela, Tabirako auzotarrak Bilboraino joan ahalko dira bertatik, eta, besteak beste, Landakoko anbulatortara garraio publikoan joan ahal izango dira.

Ion Andoni del Amoren (EH Bildu) ustez, “zentsuzkoa eta egingarria” da ekimena. Izan ere, autobusa pasatzen da, dagoeneko, auzotik, egunean hiru aldiz. Ideia, Tabiran egindako auzo batzar batetik sortu dela azaldu du. EAJk, Herriaren Eskubideak eta PSE-EEK egitasmoaren alde egin dute. PP abstenitu egin da, Aldundiaren

azterketari itxarotea beharrezko ikusten duelako.

Beste auzoetara?

Herriaren Eskubideak, Julián Riosen ahotan, beste puntu bat txertatu gura izan du mozioan: Durangoko beste auzoetara ere garraio publikoa eramateko azterketa bat egitea. Baina, EAJk eta PSE-EEK proposamena batzordean lantzea eskatu dute. Azkenean, gaia hurrengo batzar-rrerako landu eta aurkezteko konpromisoa hartu du Herriaren Eskubideak.



Tabiran, geraleku berria Arriluzea kalean ipintzea da aukeratariko bat. Autobusa pasatzen da bertatik.



FJI - MOTOR

www.fji-motor.com
comercial@fji-motor.com · Tel.: 637 500 960

 MERCEDES E250 CDI COUPE, RACEren ZIURTAGIRIAREKIN 2011ko martxo. 86.400 km. Full ekipamendua. Memoriadun jesarlekuak, avantgarde automatikoa, sport jesarlekuak, elektrikoak, beroa handitzekoak, klimatizagailu automatikoa, aurrerantz eta atzerantz aparkatzeko distantzia kontrola, egonkortasun kontrola (ESP), abiadura kontrola, Xenon argiak, aleaziozko hagunak, pintura metalizatua, besoa pausatzeko aurrealdean, kanpoko atzerako ispilua elektrikoak, satelite bidezko nabigazio sistema, larruzko tapizeria grisa, larruzko bolante multifuntzionala. Urtebeteko bermea eta sorospena errepidean. 29.999€	 BMW 525D, RACEren ZIURTAGIRIAREKIN 2010eko urria. 78.366 km. Full ekipamendua. CD. MP3. Ordenagailua. Bluetooth. Ispilu elektrikoak, beroa handitzekoak eta eraigarriak. Xenon, laino-argiak, jesarleku elektrikoak, sabai elektrikoak, klimatizagailu automatikoa, aurrerantz aparkatzeko distantzia kontrola, atzerantz aparkatzeko distantzia kontrola, abiadura kontrola (ESP), satelite bidezko nabigazio sistema. Larruzko tapizeria beixa, sabai altxagarri/korrigarria kristal elektrikoduna, larruzko bolante multifuntzionala, udarako pneumatiko-jokoa, neguko pneumatiko jokoa. Urtebeteko bermea eta sorospena errepidean. 27.499€
---	---

Ibilgailu berri baten bila bazabiltza, edo erabilitakoa, historikoa, bildumazkoa edo amerikarra, jarri gurekin harremanetan, esaiguzu zein den zure nahia edo beharra eta zure aurrekontua, eta guk aukerarik onenak bilatuko ditugu mundu osoan, gero zuk zuretzat egokiena aukeratu dezazun. Auto guztiek R.A.C.E.-ren berme ziurtagiria dute.

Iraunkor: tokiko ekoizpen eta kontsumoa sustatzeko elkarte

17 bazkide dituen elkarte berriak Euskal Herria enparantz du lokala



Iraunkor elkarte osatzen duten hainbat bazkide, aurkezpen egunean, Euskal Herria enparantz duten lokalean.

ZORNOTZA J. Derteano
Txikitik abiatuta lortzen dira helburu handiak. Sinesmen horrekin sortu dute Zornotzako Iraunkor taldea. Garapen eredu industrial iraunkorra den beste batera eramateko lan egin gura dute, Zornotzan bertan. 17 bazkide dituen elkarte zapa-tuan aurkeztu zuten, eta Euskal Herria enparantz du lokala.

Lan esparruetako bat elikagaien kudeaketa da. Tokiko ekoizpen ekologikoa sustatu, eta herriko kontsumoa bultzatu gura dute; bestela esanda, tokiko ekonomia zirkular eta iraunkorra bilatzen dute: “Geuk jango dugunez, ekoizpenean geu ba-

gaude sartuta, hobeto ezagutuko dugu kontsumitutakoa; horrek segurtasuna ematen du”, azaldu zuen Urtza Uriartek aurkezpen ekitaldian.

Bide horretan dauden handicap-ak ez dira nolanahikoak. Alde batetik, ekoizleen gabeziari aurre egin behar diote. Gaur egun, 9 ekoizle dituzte, eta, etorkizunean, eskariaren eta eskaintzaren orekara heldu gura bada, ekoizle berriak beharko dira, eta arlo hori sustatzeko prest daude.


Landu beharreko beste arlo bat kontsumitzeko ohituren gaineko hausnarketa gizarteratzea da, hau da, sentsibilizazioaren

eremua lantzea. Eta, horrekin batera, kontsumo eredu berria sustatzen ahalegintzea: eskariaren arabera ekoizpena.

Elikagaiekin batera, energiaren ekoizpen eta kontsumo iraunkorra da beste lan esparruetako bat: “Zornotzak protentzial itzela du biomasan eta hidroelektrika txikietan”.

Beste lan arloetako bat lurren kudeaketa da: lurjabe eta ekoizleen (ortuetarako, biomasa lehengaiak lortzeko...) arteko bitartekaritza egitea bi aldeetarako onuragarriak diren bideak lantzeko.

Iraunkor elkarteak egiten duenaren berri www.iraunkor.eus webgunean emango dute.



Jon Bastante
(1988, Zornotza)
Zornotzako ekoizlea

Zelan sartu zinen produktu ekologikoen ekoizpenean?

Informatika ikasi, eta nirea ez zela ikustean, Derioko Nekazaritza Eskolan ikasi nuen. Suediako haztegi batean egin nituen praktikak. Hona bueltan, ustiategi propioa jarri nuen,

Ibarra inguruan. Bost urte daramatzat. Denboraldiko produktu ekologikoak ekoizten ditut; baita kiwi eta arrautzak ere.

Zelan baloratzen duzu Iraunkorren sorrera?

Tresna inportantea da herrirako. Ekoizleak batzerako orduan hutsune bat zegoen. Modu honetara artikulatzea onerako da. Ekoizpenean jende gehiago behar da, baina, horretarako, kontsumoa sustatu beharra dago. Lurzatiarena ere arazo bat da. Bizkaian, gazteek ekoizpen mota honetan aurkitzen duten arazoetako bat lur falta da. Esaterako, niri asko kostatu zitzaizdan lurzati bat aurkitzea.



Fernando Bilbao
(1956, Zornotza)
Món Empordá elkarte

Fernando Bilbao 27 urte daramatza Katalunian bizitzen. Orain bost urte, kanpora begirako merkatari ez zuten Giornako bost herritako ekoizleak batu, eta Món Empordá elkarte sortu zuten. Bilbao izan zen sustatzaileetako bat. “Hasie-

ran, kosta egiten da, baina bide bat egin ostean, eredu egingarri eta eraginkorra” dela dio. Adibide bat jarri zuen, sagarraren teoria deituko dioguna. Ikerketa batek bistaratu zuen tokiko ekoizle ekologikoen catering enpresen prezio berdinean hornitu zitzaketela inguruko eskolak. Hiru eskola sartu ziren proiektuan. Pauso txiki-kin hasi ziren: “Postretik hasi ziren, sagarra esaterako. Ondoren, inguruko arrantzaleak batu ziren. Gaur egun, sukalde propioagaz eta guraoen inplikazioagaz, jaten dutenaren %70 bat ekologikoa da. Txikitik hasita —sagar batetik— lortu daitekeenaren adibidea da”.

Boroako saneamendu kolektorea amaituta

Besteak beste, 23 eraikinetako ur zikinak batuko ditu

ZORNOTZA J.D.
Zornotzako Udalak Boroako San Pedroko saneamendu kolektore berriaren lanak amaitu ditu. Honek 23 eraikinetako ur zikinak batuko ditu (aurrerantzean, beste bost gehiago batu

ahal izango dira), baita Boroa jabetxeak, Anaitasuna Elkarte txokokoak eta Boroako igerilekuko komunetakoak ere.

Kolektore berriak, guztira, 2,5 kilometro inguru ditu. Boroako San Pedro auzoko ur zikinak

batu eta Boroako enpresa parkean dagoen udal saneamendu kolektore bideratzen ditu. Era berean, Astepeko Hondakin Uren Araztegira bideratzen dira. Saneamendu kolektorea egiteaz gainera, eraikinak hargune partikularren bidez lotu dira lehengo putzu septikoak kenduz.

Bestalde, Udalak Kaputxe inguruan udal kolektore bat martxan jarri du, auzokideek zuten kezkari erantzun bat emanez eta inguruko etxebizitzaren saneamendu urak behar bezala jasoz.

Lehiaketara atera dute igerilekuaren kudeaketa

OTXANDIO J.Derteano
Otxandioko kanpoko igerilekuaren kudeaketaren esleipena lehiaketa publikora aterako du Udalak. Igerilekuko zerbitzu denei dagokie esleipena: garbiketa, sorosle-zerbitzua eta tabernaren ustiapena barne. Hiru urterako esleipena

da, urtez urte berrituko dena, kontrako iritzirik ez badago. Baldintza eta betebeharrak jasotzen dituen txostena udaletxean bertan jaso daiteke, eta baita www.otxandio.net udaleko webgune ofizialean ere. Martxoaren 30era artekoa da udaletxean proposamenak aurkezteko epea.

Zerbitzuaren aurrekontua 38.316 eurokoa da (BEZ-a barne), eta gehienezko kopuru hori beharantz hobetu dezakete lizitatzailerak.

Eraikuntzarako materiala
MACOBER
Zeramika eta gresa
Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia
946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

hitz #gomendioak
artekalea 14, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com



DURANGO
Udala • Ayuntamiento
www.durango.eus



CINE ZUGAZA
ARRIOLA ANTZOKIA
BERRIZKO KULTUR ETXEA
Zine-emanaldiak baino lehen

"BONBARDAKETAREN
AZTARNAK" BIDEA
www.gerediaga.eus

ASTEAZKENA

MARTXOAK

30

12:00–14:00 / 17:30–19:30

INSTALAZIO
PARTE-HARTZAILEA
BONBARDAKETAREN
BIKTIMEN OMENEZ
ANDRA MARIAKO ELIZPEAN

OSTEGUNA

MARTXOAK

31

8:30

1. AIRE-ERASOAREN
ALARMA-HOTSA
JOTZEA
ANDRA MARIAKO
KANPANDORREAN

12:00

GERRA ZIBILAREN
BIKTIMEI
OMENALDIA
Autobus zerbitzua
11:30etan Komentukalean
KANPOSANTUAN
CEMENTERIO

15:00

IRRATI TAILERRA
Nevers ikastetxeko ikasleak
DURANGO IRRATIA
(FM 107.8)

17:45

2. AIRE- ERASOAREN
ALARMA-HOTSA
JOTZEA
ANDRA MARIAKO KANPANDORREAN

20:00

BONBARDAKETAN
HILDAKOEI OROIMEN
EKITALDIA

Bonbardaketaren kanta:
Yoko Out
ANDRA MARIAKO ELIZPEAN

Antolatzaileak
Gerediaga Elkarte eta Kriskitin
Dantza Taldea

OSTIRALA

APIRIAK

1

19:00

MAHAI INGURUA
"DE CERCA: ÉXODO
DEL REFUGIADO"

Nerea Mujika (Gerediaga),
Hodei Arrausi (EITB),
Mateo Agirre (Alboan)
eta CEAR-Euskadi
KURUTZESANTU MUSEOAN

LARUNBATA

APIRIAK

2

17:30

BISITA GIDATUA
"HUELLAS
DEL BOMBARDEO"

IZEN EMATEA (DOAN)
gerediaga@gerediaga.eus
eta 94 6818066

IGANDEA

APIRIAK

3

11:30

BISITA GIDATUA
"BONBARDAKETAKO
AZTARNAK"

IZEN EMATEA (DOAN)
gerediaga@gerediaga.eus
eta 94 6818066

DURANGO 2016

MARTXOAK 31

DURANGOKO
BONBARDATZEAK OROITUZ



Sahararrei lagunduko diete Durangaldeko bost ikaslek

Abuztuan kanpamenduetara joango dira, EHUko beste 40 ikaslegaz batera



Ekzerretik eskumara, Oleaga, Uriarte, Aresti, Unzueta eta Marquez.

DURANGALDEA M.O.

Errefuxiatuen kanpamenduetan bizi diren sahararrei laguntzeko proiektu bat dute esku artean EHUko 45 ikaslek, eta, tartean, Durangaldeko bost daude: Luisa Oleaga, Lara Aresti eta Naiara Marquez durangarrak; Leire Unzueta zornotzarra eta Jon Uriarte ermuarra. Abuztu amaieran hara joango dira, uholdeek kaltetutako etxeak konpontzera, adibidez.

Hile honetan, eguen eta zapa-tuetan, Goienkalean mahai bat ipiniko dute, dirua batu eta kon-

tzientziazioa lantzeko. Maiatzaren 1ean jaialdi bat egingo dute.

Ikaskide saharar bat dute, eta bere bidez koordinatuko dute laguntza. Kanpamenduetara hel-tzean, eraikuntzan laguntzeko ikastaro bat jasoko dute.

Proiektu hau duela lau urte sortu zen, eta Uriartek parte hartu zuen: "Bi astez egon ginen Saharan, eta ez dut esperientzia hoberik eduki". Aresti jakina-ren gainean egon da, eta aurten animatu da: "Aukera edukita, ez dut birritan pentsatu". Marquez kanpamenduetan egonda-

koa da, eta bizimodu gogorrari indarrez eusten diotela dio: "Euren indarra nabarmenduko nuke, batez ere emakumeena". Hara joatea, elkartasun pauso berri bat emateko beharra ikusi du Oleagak: "Urte luzez, etxera ekarri izan ditugu sahararrak, baina bizi duten gatazkaren aurrean, zerbait gehiago egiteko erantzukizuna sentitzen nuen".

Gogotsu igartzen zaie. "Beste errealitate bat ezagutzeko modu bat da, eta aberasgarria izango dela uste dut", esan du Unzuetak.

tzea. "Urtez urte, kontsumitzaile-sarea egonkortzen ari da", adierazi dute arduradunek.

Nafarroa hegoaldeko

Nafarroa hegoaldeko produktuak eguneroko kontsumo ohituretara ekartzea da Errigorakoen asmoa, etekinagaz ekoizleei bultzada emateko eta euskalgintzari laguntzeko. Maiatzaren 12tik 24ra bitartean izango da hurrengo kanpaina, kontserbena, hain zuzen ere.

eskualdean, 4.600 litro inguru, guztira. Euskal Herrian, Errigorako kideak oso pozik agertu dira olioaren kanpainako emaitzagaz. Izan ere, iaz baino %65 handiagoa izan da parte-har-

4.600 litro olio banatu dituzte Errigorakoek

Durangaldeko 300 lagunek eskatu dute olio nafarra

DURANGALDEA M.O.

Durangaldeko 300 lagunek jasoko dute Errigora ekimeneko olio. Asteon heldu dira olio botilak, eta auzolanean banatzen hasi dira. 928 bidai jasoko dira

Eskola materiala batu, eta Senegalera bidaliko dute

La Otra Mirada elkarteak kanpaina bat abiatu du

DURANGALDEA J.Derteano

La Otra Mirada elkarte humanitarioak eskola materiala batzeko kanpaina abiatu du. Senegal hegoaldeko eskola batera bidaliko dute batutako guztia.

Eskola materiala batzeko kanpainak apiril amaierara arte iraungo du. Durangaldeko hainbat ikastetxe eta liburu-dendetara gutunak bidali dituzte, ekimenean parte hartzeko gonbita egiteko eta materiala biltzeko guneak bertan jarri ditzaten eskatzeko.

La Otra Miradak Mongolian zentratu izan ditu bere ekimenak, batez ere, baina, iaztik, Senegaleko ikastetxe batzuetako egoera hobetzeko lanean ere badabilta. Izan ere, bazkide bat senegaldarra da, eta hango beharrianak azaldu zizkien.

La Otra Miradako kideak Senegalen ere izan dira hango egoera bertatik bertara ezagutzeko. Horrela, aurten, Senegal hegoaldean dagoen herrixka bateko eskolarako materiala batu eta bidaltzeaz gainera, "argindarra izan dezaten eguzki

Ikastetxe eta liburu-dendetan billgune puntuak jarriko dituzte apiril amaierara arte

-panelak jartzeko ahaleginetan ere ari gara", La Otra Miradako Elena Ariznabarretaren esanetan. Izan ere, herrixka horretan ez dute, gaur egun, ezelango argindarrik.

Gazte Danbadarako deia egin du Ernaik

Laudion egingo da topaketa, hilaren 25etik 28ra

DURANGALDEA M.O.

Ernai eta Aitzina gazte erakundeek Gazte Danbada topagunea antolatu dute, eta martxoaren 25etik 28ra egingo da, Laudion (Araba). Durangaldeko Ernaiko kideek ere hara joateko deialdia egin dute.

Azaldu dutenez, etorkizuna gaurtik lantzen hasi gura dute: "Bizi dugun egoera prekarioan, esna egotea ezinbestekoa da". Formazioa aisialdiagaz bateratuko dute, eta kontzertuetan, Durangaldeko Pixontxis eta Nevadah taldeak egongo dira.



Durangaldeko Ernaiko zenbait kide, deialdia zabaltzeko argazkian.

MARTXOKO SARIAK

Anbotoren lagunak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org
Tel.: 946 816 558



UR URDAIBAI.
JARDUERAK URDAIBAIEN
Urdaibaiko ibaiaren
jaitsiera Kayak /
Kanoa / Sup
7 pertsonentzat.



HITZ LIBURU-DENDA.
LIBURUA ETA CDa
Patrick Modianoren
"Dora Bruder"
liburua eta
Esne Beltzaren
"Esna" CDa.



EROSKI.
SUKALDEKO ROBOTA
Thermogrind Prixton
1,7L. Berehalako
saltsa, zopa eta
irabiakiak.



SALTSAN KATERIN.
EGUEN SALTSAN
Kalitate handiko
produktuen
dastaketa, 2
pertsonentzat.
4 egile-pintxo,
2 ardorekin
lagunduta.



**UNAMUNZAGA
HORTZ-KLINIKA.**
ESKUILA ELEKTRIKOA
Hortzetako eskuila
elektrikoa PC800
sensitive ORAL-B.



ABANTAILAK

- > Deskontuak Durangaldeko zein eskualdez kanpoko hainbat saltokitan.
- > Deskontuak Anboton argitaratzen diren iragarki labor ordainduetan eta eskeletan.
- > Hilero egingo diren zozketetan parte hartzea.
- > Durangaldeko egutegia eta turismo-gida opari.

Biblioteka sei hilabetez itxiko da, berrantolaketa lanengatik

Apirilaren 15ean etengo dute zerbitzua, biblioteka hustu ahal izateko



2001ean zabaldutako liburutegiaren eredua “zahartuta” geratu da, eta “gaurkotu” beharra dagoela nabarmendu dute.

IURRETA Aitziber Basauri
“Zahartuta” geratu dela-eta, sei hilabetez itxiko dute biblioteka, berrizteko eta “gaurkotzeko” lanek eraginda. Apirilaren 15ean itxiko dute, baina, lotutako ekin-tzak mantendu egingo dira. Hala esan dute Iñaki Totorikaguena alkateak eta liburutegiko arduradun Ziortza Onandiak.

Ibarretxe kultur etxearen lehenengo solairu osoa hartuko duen liburutegi berriagaz 214 metro lineal irabaziko dituzte, eta orain ez dauden 11 irakurketa-postu ere bai. Azpiegitura berriak 36 ikasketa-toki izango ditu; zazpi ordenagailu eta lau tablet. Erabilera datuen arabera berrantolatu dute lekua, eta argitasuna eman gura izan diote.

Ekainaren 1ean aurreikusi dute hiru hilabete luzatuko diren lanekin hastea. Aurretik, baina, 40.000 dokumentuk osatutako funts bibliografikoa bajatuko dute sotora; baita berrera-biliko dituzten altzariak ere. Ia 132.000 euro eskatuko dituzten obrak amaituta, irailean eta urrian, funts bibliografikoa eta

altzariak jarriko dituzte. Azaldu dutenez, oinarritzko altzari berriak ere erosiko dira (60.497

214 metro lineal irabaziko dituzte, eta orain ez dauden 11 irakurketa-postu ere bai

euro). Urtean-urtean joango dira altzariak berritzen. Urriaren 24an ireki nahi dute biblioteka.

LIBURUTEGI BERRIA

- 640 metro lineal
- 264 metro koadro
- 36 ikasketa-puntu
- 11 irakurketa-puntu
- 7 ordenagailu eta 4 tablet

EPEAK

Apirilak 18: funts bibliografikoa sotora bajatzen hasiko dira.

Maiatzak 9-31: altzariak desmuntatuko dituzte.

Ekainak 1-irailak 2: obra zibila.

Irailak 5-23: altzarien muntaia.

Irailak 26: funts bibliografikoa igotzen hasiko dira.

Urriak 24: liburutegia irekiko da.

Igerilekuaren sakonera 1,70ekoa izango da

Hasierako egitasmoa aldatu du udal gobernuak

ABADIÑO Itsaso Esteban
“Igeriketa taldeko kideen eskariak entzun ondoren”, Astolako igerilekuan egingo dituzten lanei dagokienez, “planak aldatu” dituela jakinarazi du udal gobernuak. Ohar batean azaldu dute, hasieran iragarri bezala, 1,40 metroko sakonera barik, 1,70ekoa emango diotela, tranpolinen gunean, igerilekuari.

Aldaketa hauekin, “igeriketa taldekoen eskariak, eta, era berean, Udalaren hasierako hel-

buruak beteko dira”, azpimarratu du udalak ohar horretan: “Igerian ez dakitenek ere aukera izango dute igerilekua erabiltzeko, edota ikastaro terapeutikoak egiteko”. Ur gimnasio bat eta *spinning* gela bat atonduko dituzte, jarduera horietarako.

Orain aste batzuk iragarri zuten bezala, lan horiek eta ohiko garbiketak egiteko, igerileku klimatizatua itxita egongo da, martxoaren 21etik apirilaren 10era bitartean.

Adineko emakumearen bila darraite, helikopteroagaz

Astebete baino gehiago daramate bilaketa lanetan

ABADIÑO I.E.
Martxoaren 9tik desagertuta dagoen 70 urteko emakume abadiñarraren bilaketa lanekin darraite Ertzaintzak eta Ibaizabal erreka igarotzen den udalerrietako udaltzaingok.

Ertzaintzak azaldu duenez, azken egunetan bertan behera utzi dute urpekarien bilaketa lana, ibaiak ur asko dakarrelako. Hala ere, emakumearen bila

jarraitzen dute, helikopteroagaz, Ibaizabal erreka ibilgua ikuskatuz. Datozen egunetan ere jardun horregaz jarraituko dute, Ertzaintzaren arabera.

Astebete baino gehiago da 70 urteko emakumearen desagertuaren abisua eman zutela, eta bilaketa lanak ez dituzte utzi. Atzo Ertzaintzak berretsi zenez, baina, “momentuz, ez dago ezelako nobedaderik”.



Eguaztenean egindako ezohiko bilkura

EAJk EH Bilduren jantoki proposamena baztertu du

EAJk atzera bota du, kontrako 5 botorekin

BERRIZ M.Z.
EH Bilduk, Berrizko eskola-jantokietako eredua hobetzea “ezinbestekoa” dela ikusita, mozio bat aurkeztu zuen, baina onartu gabe utzi du gobernu taldeak. EH Bilduko kideen esanetan, “beharrezkoa” da jantokien kudeaketa herrian egitea, jakiak bertakoak izatea...

EH Bilduren hitzetan, eskola-jantoki eredu berri honek Berrizko gizarte garapenari lagunduko lioke, eta herriko ekoizle, merkataria eta guraso elkarteek lankidetzan sortuko lukete proiektua. Gainera, aste honetan egindako ezohiko udal

batzarrean, EH Bilduko kideek adierazi dute nekez ipiniko dutela martxan herrian komertzioei onura “gehiago” ekarriko dion beste proiekturik.

EAJko kideak ezohiko bilkuran proiektuaren helburuarekin ados agertu diren arren, Orland Isoird Berrizko alkateak EH Bilduko kideei erantzun die mozio horretako zenbait puntutan “beharrezkoa” dutela hausnarketa sakonagoa egitea, eta beraz, ezin dutela, momentuz, proiektu berri hau onartu.

Apirilaren 14ko batzorde orokorrean hitz egingo dutela adierazi die EAJk beste alderdiei.

Solatxo bete-leku baimena atzera botatzeko eskatu du Udalak

ATXONDO J. Derteano
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak Solatxo inguruan —Atxondo eta Elorrio artean, Memaiatik gertu— isurtegia egiteko baimena eman die obrako arduradunei, bertan AHTko lanetatik ateratako lurrak bota ditzaten. 385.000 metro kubiko bete daitezke, gutxira. Udalak baimena bertan behera uzteko, eta horretarako espediente berriz hutsetik hasteko eskatu dio Jaurlaritzari. Udaleko batzorde irekian erabaki zen bide hori hartzea Gobernu Taldeak (EH Bildu) horren alde eginda. Baimena bertan behera geratu dadila eskatzeko, hainbat arrazoi jasotzen dituen txostena bidali dute. Batetik, “ez daukate Uraren Euskal Agentziaren eta Jaurlaritzako biodibertsitate zerbitzuaren baimenik”, Dabid Cobos alkatearen esanetan. Bestetik, AHTa egiteko, ingurumen inpaktuarekiko txostenean betelanak egiteko hiru kokaleku posible jasotzen ziren, eta Solatxokoa ez da horietako bat: “Ingurumen txostenaren kontra doa”. Azkenik, ingurumen txostenak dio betelanak ezin diela basoei eragin, eta gune hartan badago baso bat.

“Neurriak hartu ditugu lur-jausiak errekararen bidea hartu ez dezan”

Lur-jausi batek 300 metro kubikoko lur mugimendua sortu du, Mallabian



Osmatik Mallabarrena poligonora bitartean sortutako lur-jausiak bidea moztu du. Ermuberri.

MALLABIA Paul Bustindui Pasa den asteko euriteen ondorioz sortutako lur-jausiek kalte larriak sortu dituzte, Mallabian. Ondorioz, herrigunetik Osmara doan errepidetik Mallabarrena

poligonoraino dagoen 500 metro koadroko eremua isolatuta gelditu da. Lur mugimendu horren eraginez, bide bat moztuta gelditu da, eta auzoguneko etxe bat isolatuta. Mallabiko Udala,

Bizkaiko Foru Aldundia eta Ur agentzia elkarlanean ari dira otsaileko lur-jausiek Mallabian eragindako kalteak konpontzeko. Udalak, geologoen ikerketa eskatu ondoren, hondeamakina

martxan jarri zuen egoera normaltasunera itzultzeko. 300.000 metro kubiko lur mugitu direla aurreikusi dute. “Lur honek mugiarazi dituen materialek errekararen bidea jarraitu ez dezaten, neurriak indartzeko erabakia hartu dugu. Lurrarekin nahastutako urak bide bat oztopatu lezake, eta horrek Mallabarrena industrialdean arazoak sortu litzake”, adierazi du Igor Agirre alkateak.

Kalteak Goitondon

Mallabarrenakoaz gain, Goitondo industrialdean ere beste lur-jausi bat gertatu zen. Onandi baserriko Eñaut Gallastegik pabilioiko atzeko partean lur-jausia izan zuen. “Orain kaltzatu egin dute eta eguraldi ona etorri arte itxaron beharra dago”, dio Gallastegik. Bere gazta fabrikak sortutako kalteak “konstruktorearen kargu” daudela adierazi du. Dena dela, beste lur-jausi baten beldur dira oraindik Onandi baserrian: “Iturburu bat aurkitu dute azpian, eta drainatzea egin beharko dute”.

Anfiteatroa estaltzeaz kontsulta

MALLABIA J. Guenetxea

Mallabiko Udalak herritarrei kontsulta egiteko asmoa du, parke inguruan dagoen anfiteatroa estaltzeari buruz. Udaletik azaldu dutenez, “kontsulta honetan, herritarrek proposamen posibleei buruzko ekarpenak eta iradokizunak egiteko aukera izango dute”. Herritarren ekarpenak gaurtik domekara bitartean jasoko dituzte.

Kontzejuzarreko lokalera hurreratu beharko dira herritarrek anfiteatroa estaltzearen inguruko iradokizunak helaraztera. Goizez zein arratsalde jarri dute zita. Gaur, 18:00etatik 20:00etara jarri dute hitzordua. Bihar, zapatua, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Domekan, berri, 12:00etatik 14:00etara.

IV. Landare eta Lorezaintza Azoka apirilaren 17an egingo da

GARAI M.O.

Apirilaren 17an egingo da Garaiko IV. Landare eta Lorezaintza Azoka, aurreko urteetako arrakasta errepikatu guran. Urkiola landa garapeneko elkartek, udalak eta Trumoitte kultur elkartek antolatzen dute ekitaldia. Landareen ekoizleak etorriko dira Garaira, eta jarduera horretarako beharrezko diren tresnak ere ikusgai egongo dira. Goizeko 10:00ak inguruan hasi, eta eguerdira arte egongo da azoka zabalik.

Gainera, berbaldi bat ere eskainiko du Lur2000 enpresako Ramon Zearretak, lorategien mantenu erraz eta ekonomikoaren inguruan.

Ginkanagaz hasiko dute Gaztetxeko 28. urtemuga

Gaztetxeak 28 urte bete dituela ospatuko dute

ELORRIO M.O.

Elorrioko Gaztetxeak 28 urte bete ditu aurten, eta urtemuga hori bihar ospatuko dute egun osoko jaialdi batez. *28 baino askoz gehiago* lemapean iragarri dituzte ekitaldiak, eta ginkana batez hasiko dute jaiak. 10:00etan batuko dira plaza, ginkanako jolasetan parte hartzeko.

Jolasetan ibili ostean, indarrak hartzeko sasoia edukiko dute. 13:00etan poteoa egingo dute, eta 14:30ean bazkaria, kiroldegian. Aurretik, 14:00etan, omenaldia burutuko dute, San Josen.

18:00etan talde argazkia aterako dute, Gaztetxean bertan,

eta segidan, kontzertu akustiko bat entzun ahaliko dute.

Argazkia aterako dute Gaztetxean, eta segidan, kontzertu akustiko bat entzun ahaliko dute

Dinero taldea, zuzenean

Gauetz, kontzertuekin jarraituko du jaiak. Bertan, Pixontxis elorriarrak eta Dinero taldea igoko dira taulara. Ekain Elorza berriztarraren taldea da Dinero, Madrilan agertoki musika-lean sortutakoa.

Kantu-potean elkartuko dira herritarrek gaur arratsaldean

MAÑARIA M.O.

Jai giroan murgiltzeko gogoak dutenek aukera itzela edukiko dute, gaur, Mañarian. Izan ere, kantu-potean elkartuko dira hainbat herritar, 19:30ean hasita. Tabernarik taberna ibiliko dira, trago batzuk hartu eta abesteko asmoz. Zenbait herritarrek eta tabernarik sustatu dute ekimena, eta Herriko tabernan ipini dute lehen galeakua.

Bestalde, apirilaren 16an, Launa upategira irteera egingo dute jai batzordeak antolatuta, eta, gaur arratsaldean, apuntatzeko aukera eskainiko dute. Plazan egongo dira txartelak saltzen, 19:00etatik 19:30era bitartean.

Pentsamendu positiboa landuko dute ikastaro batean

IZURTZA J.Derteano

Durungaldeko Amankomunazgoko Pertsona Nagusien Dinamizazio Sailak urteko lehen ikastaroa garatuko du, Izurtzako nagusien lokalean, apiriletik aurrera. Edozein adinetan bizitzari baikortasunez begiratu behar zaiola erakustea du helburu, eta modu horretako jarrerak, emozioak eta pentsamendu positiboak lantzen lagunduko dute. ‘Ez dago pentsamendu positiboak baino sendagai hoberik’ dio ikastaroaren goiburuk.

Ikastaroa apirileko eguen denetan (apirilak 7, 14, 21 eta 28) emango dute, 17:00etatik 18:30era. Izen-ematea doakoa izango da.

Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
posta elektronikoa: jrueda@segurosibilbao.com

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxe: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

Udal Kutxari 180.000 euro bueltatu beharko dizkio udalak

Iaz baino diru gutxiago izango du udalak inbertsioak egiteko



Hiru zinegotzi jeltzaleen babesagaz onartu zuten EH Bilduko gobernu taldeak proposaturiko udal aurrekontua.

ZALDIBAR **Itsaso Esteban**
Aitor Arizmendiarieta Ogasun arloko zinegotziak azaldu duenez, “udalaren zerbitzuak eta herriko elkarteak laguntzera bideraturiko diru kopurua mantentzea da guztira, ia 2.800.000 eurokoa den 2016rako udal aurrekontuaren helburua”.

Arizmendiarietaren berbetan, “Bizkaiko Aldundiak iaz egindako aurreikuspen okerraren erruz, aurren, Udal Kutxari 181.000 euro bueltatu behar izateak” udalaren inbertsioetarako aukera murriztu du: iaz, 322.000 euro zeuden inbertsioetarako aurreikusita, eta, aurren, 136.000 euro bideratuko dituzte inbertsioetara.

Eguazteneko osoko bilkuran onarturiko aurrekontuaren arabera, honakoak izango dira Zaldibarko Udalaren 2016ko inbertsio nagusiak: herritarrek partaidetza foroetan erabakita-kohamar proiektuak gauzatuko dituzte (kale garbiketarako makina bat erosi, Olazar ingurua atontzen amaitu, pintadak garbitu, edo eskolako itxitura atonduko dute, besteak beste), Hiri Antolamendurako Plan Orokorra idazten amaituko dute, kale argiteria berritzen jarraituko dute, eta lau urterik behin egiten den euskararen kale neurketak burutuko dute, besteak beste.

EH Bildu eta EAJko ordezkariak bozkatu zuten aurrekontu

proposamenaren alde, eta abstentitu egin zen PSE-EE.

Omniaren mozioa

A8 autobideko bidesariari buruzko bi mozio, eta PSE-EEK urgentziaz aurkezturiko hiru garren bat ere bozkatu zituzten eguazteneko osoko bilkuran. EH Bilduk, EAJk eta PSE-EEK, aho batez, egin zuten Omnia taldeak aurkezturiko idatzia-aren alde. Bi eskari egin ditu, beraz, Zaldibarko udalbatzak: Gerediaga-Ermua tarteak erabiltzen duten garraiolariei diru-laguntzak, eta tarte horretan autobidea erabiltzen duten norbanakoei deskontuak eskaini diezazkiela Aldundiak.

Sei urteko auziaren ostean, udalari eman dio epaileak arrazoia

ZALDIBAR I.E.

Zaldibarko Udalak Zaldia plaza 7, 8 eta 9. zenbakiko eraikinaren jabeagaz, Durangoko PPko zinegotzi ohi bategaz, 2010. urtetik epaitegietan eduki duen auzia udalaren aldeko sententziagaz eman du amaitutzat EAEko Auzitegi Nagusiak. Udalak 2010etik eskatu bezala, teilatua eta fatxada konpontzea eta eraikina habetzea agindu dio epaileak jabeari. Agindua bete ezean, Zaldibarko Udalak isuna jarriko dio jabeari.

2010. urtean Zaldibarko Udalak emandako aginduaren kontrako errekurtsioa aurkeztu, eta eraikina erortzeko zorian dagoela adieraztea eskatu zuen jabeak, 2012an. Eraikina ez dagoela hondamen egoeran, eta jabeak bere betebeharrak dituela defendatu du, sei urtez, udalak. Ahotan darabilguna bezalako kasuetan, jabeak, sarritan, eraikinak bertan behera utzi, eta hondamen deklarazioaren ostean, “zaharra eraitsi eta etxe berria eginez espekulatu” egiten dutela azpimarratu du EH Bilduko udal gobernuak. Horregatik, sententzia hau “oso inportantea” dela uste du Zaldibarko udalak.

Bere abokatuarekin hitz egin arte ez duela ezelako adierazpenik egingo adierazi dio zinegotzi ohiak ANBOTOri.

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU
EH Bildu



Udal legea

Udalak dira herritarrengandik hurbilen dauden administrazioa. Horregatik, hain zuzen ere, hainbat zerbitzu ematen dituzte. Baina, euren dagokien zerbitzu horiek ematea? Orain arte ez da egon legerik eskumen esparru hori era zehatz batean ezarri duenik. Horren ondorioz, beste administrazio batzuek aldarrikatu ahal zuten eskumen hori edota, bikoiztasunak sortuz, zerbitzu berdinak eskaini. Testuinguru horretan, udalak bigarren mailako erakundeak ziren, administrazio orokorraren eta aldundien azpitik. Eta noski, erabaki ahalmena eduki barik zerbitzuen finantziakzioa erabakitzen den organoetan. Herritarrengandik hurbilenak, baina erabaki garrantzitsuetatik kanpo.

Datorren hilabeteen Gasteizko legebiltzarrean onartuko den tokiko erakundearen legearekin, udalei adin-nagutasuna aitortuko zaie, eskumen esparru propio batekin, zuzenean edo amankomunean garatu ahal izango dituzten eskumenekin. Baliabide ekonomikoen banaketa egiterakoan ere ahotza eta erabaki ahalmena izango dute.

Horrekin konponduko dira udalek dituzten arazoak? Ziur-zenik ez. Baina inork ez du zalantzan jarriko udalek ematen dituzten zerbitzuak. Beste erakunde batzuk ezin izango dira udalen eskumenak “zapaltzera” etorri, eta horrez gain, zerbitzu horiek finantziakzio nahikoa izango dute. Beraz, laster, herritarrei era eraginkor batean zerbitzuak eskaintzeko beste tresna baliagarri bat edukiko dugu. 35 urteren ondoren, herriekin, herritarrekin pendiente geneukan zor bat kitatuko dugu.

DURANGALDEA ASTEON

Euskara bultzatzeko bideo lehiaketa, abian

BERRIZ > Euskara bultzatzeko bideo lehiaketa antolatu du udalak. Lehiaketako gaia euskara izango da: egunerokotasunean, erosketak egiterakoan, jolasterakoan, parranda egiterakoan... herrian euskara nola erabiltzen duten erakutsi beharko dute berriztarrek. Apirilaren 8ra artekoa da bideoak aurkezteko epea.

Dantzariak bazkalorduan hartzeko izen-ematea

ABADIÑO > Apirilaren 10ean ume dantzari XVI. jaia egingo dute, Traña-Matienan. Ohi bezala, beste herri batzuetatik etorriko diren umeak herriko etxeetan bazkalorduan hartzeko izen-ematea hasi dute. Apirilaren 5a baino lehen, Traña-Matienako Errota kultur etxean, Petiterenean edo Hezgarrin egin daiteke.

Aste Santuan udalekuak izango dira Atxondon

ATXONDO > Marixurriek Aste Santuan udalekuak antolatuko ditu, lehenengoz, Atxondon, martxoaren 29tik apirilaren 1era. Sukaldaritzan eta elikadura subirauntzan oinarrituko dira. Esaterako, herriko nekazariei produktuak erosi eta Arrazolan kozinatuko dituzte. Informazio gehiago: 686 267 746 eta 600 015 818.

IRITZIA



Fotodenuntzia

Bilboko kale bat Aste Nagusian dirudien arren, Zaldibarko futbol zelai ondoko kalea da, astelehen honetan 19:00etan.

Dagokionak zerbait egin beharko luke, sarritan errepikatzen den egoera lotsagarria baita.

Pello Maguregi (Zaldibar)

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.



Itziar Astigarraga (1962) eta Susana Garcia-Obregón (1976) | Biocruces osasun ikerketa zentroko ikerkelariak

“Farmazia ikerketak ez dira horrenbeste bideratzen haurren gaixotasunetara”

Durangon sortutako Marea Laranjak BioCrucesen haur-minbiziari aurre egiteko bi ikerketa proiektu bideratzea lortu du



> BERBAZ Aitziber Basauri
Urtea bete du Marea Laranjak. Haur-minbiziaren kontrako borrokan, ikerketa mediko-zientifikoa finantzatzeko sortutako ekimen hark eragin itzela izan zuen Durangon, eta elkartasun olatuaren erakusle izan zen. Orduan batutako dirua BioCruces osasun ikerketa zentroan garatutako bi ikerketa proiektu finantzatzera bideratu zen. Biocruceseko Onkologia Pediatrikoaren ikerketa taldeko arduraduna da Itziar Astigarraga (Gurutzetako ospitalerako Pediatria zerbitzuburua eta umeen onkologoa), eta taldeko biologia-ikertzailea Susana Garcia-Obregon.

Zeintzuk dira Marea Laranja hark lagundutako proiektuak?
Itziar Astigarraga: Umeen leuzemietan oinarritutako proiektu bi abiatu ditugu. Itzela izan zen Marea Laranja, eta herriarren elkartasuna, miresgarria. Horri esker, Asparraginasaren —leuzemia eta linfometan erabilitako farmako nagusiak— duen papera ikertzen ari gara lehenengo proiektuan. Horren eragina desberdina da

batzuegan edo besteengan. Gaixo batzuk antigorputzak sortzeko gai dira, eta ez diote uzten farmako horri zelula gaiztoak suntsitzen.

Susana Garcia-Obregon: Horrez gain, badaukagun material genetiko berreskuratzeko —10 urteotan leuzemia diagnostikatu zaien horien— metodo berri bat du aztergai bigarren proiektuak. Leuzemien zelulen aldaera genetikoak ikertuz gero, azaldu egin liteke zergatik duen minbizi horrek eragin handiagoa ume batzuegan besteengan baino. Eta, zergatik erantzuten dioten hobeto edo txarrago tratamenduari, mikroskopioan zelula horiek berdinak diruditen arren.

Eta zein fasetan daude?

I.A.: Ikerketa hauekin hasteko aukera izan dugu La Cuadri del hospi elkartetik egitasmo bakoitzarako lortutako 17.000 euroei esker. Asparraginasaren jarduera entzimatikoa neurtzeko ikerketa metodoen aukerak aztertzeke lehenengo pausoak eman dira. Interesa izan dezaketene beste talde batzuekin ere jarri gara kontaktuan analisiak

garatzeko era onenak ebazteko.

S.GO: Bestalde, izapide asko behar dira ikerkuntza proiektuen aurreneko faseetan, EAEko Ikerketa Klinikotarako Batzorde Etikoa onartu behar dituelako ikerketa guztiak. Esperimentuekin hasita gaude, zati batean. Hala ere, ditugun laginetan esperimentuak egin aurretik —leuzemia gainditu dutenena, tratamenduan dauden gaixoena edo hil direnena—, beharrezkoa da proposatutako metodoa balioztatzea. DNA ateratzeko proposatutako metodoak osasuntsu dauden pertsonengan balio duela baieztatu dugu lehenengo proiektuan; eta, datozen hiletan, proba gehiago egingo ditugu funtzionamendu ezin hobea egiaztatzeke. Gero, familiekin jarriko gara hartu-emanetan.

“*Umeen leuzemietan ikertzen jarraitzeko lehenengo pausoak izango dira hauek*”

Epe luzerako egitasmoak dira.

I.A.: Ikerketa hauetarako, urte bi aurreikusi dira, baina, umeen leuzemietan ikertzen jarraitzeko aurreneko pausoak izango dira.

Zelan lagundu dezakete haur-minbiziari aurre egiten?

S.GO.: Ikerketa ezinbestekoa da gaixotasunen ezagutzan aurrerapausoak emateko, eta ahalik eta pertsona gehien osatzeko terapia berriak diseinatzeko. Ikerketarik gabe, ezin dira biziraupen tasak hobetu; ezta zelula gaiztoak suntsitzeko tratamendu eraginkorrak lortu ere; minbiziaren dute umeentzat horren toxikoak ez direnak.

Hala ere, ikerketarako inbertsioak ez dira nahikoak, ezta?

S.GO.: Gurago genuke ikerketan eta berrikuntzan gehiago inbertitzea. Badira Eusko Jaurlaritzak, Espainiako Gobernuak eta Europako Batasunak deituta, ikerketa finantzatzeko deialdiak; baina, oso lehiakorak dira eta oso zaila da dirua lortzea. Minbiziari dagokionez, helduen artean ohikoenak diren minbizi motetan dago inte-

res gehiago. Farmazia ikerketak ez dira horrenbeste bideratzen haurren gaixotasunetara. Beste minbizi mota batzuetan jartzen dute arreta: bularreko minbizi, biriketako, kolonekoa...

Horren aurrean, La Cuadri del hospi eta halako elkarten lana ezinbestekoa da?

I.A.: Miresgarria, itzela da horien konpromisoa, lana eta dedikazioa. EAE-n, umeen minbiziari aurre egiteko ikerketa garapenerako balio handia duen funts ekonomikoa lortzen ari dira. Ezin genuen amestu ere egin horrelako aldaketa sozial handia, eta gizarte ekimenek lortzen duten elkartasuna.

Kontzientziazio lan handia da egindakoa?

I.A.: 25 urtetik gora dira haur-minbiziaren lan egiten dudala, eta asko poztzen naiz gaixo eta senideen elkarteek egindako kontzientziazio lanari esker emandako aurrerapen handiagaz. Askok laguntzen diete beste familia batzuei, eta bizitzako lehenengo urteetan minbizi izateak eragiten duenari ikusgaitasuna ematen diote. Denon artean, umeek bizimodu ‘normalagoa’ izatea lortzen ari gara.

Hezur-muin ematea nola doa?

I.A.: EAE-n harro egon gaitzeko gizartearen elkartasun mailagaz. Eredu gara munduan, donazioetan; hezur-muin ematean ere bai, baina hobetzen jarraitu gura dugu. Nahi baino emaille gutxiago daude. Askok zalan-tzak dituzte, eta La Cuadri del hospi eta bestelako ekimenen lana oso garrantzitsua da beldurrak uxatzeko; informatzera edo emaille egitera animatzeko.

Umeek nola bizi dute gaitza?

I.A.: Umeak ere du gu guztiontzat. Gaitzari baikor eta ausart egiten diote aurre. Itxaropenari eusten diote, irribarretsu, eta beste guztiok animatzeaz arduratzen dira. Nerabezaroan izan daiteke zailena: aldaketa handia bizi dute, bizimoduan mugak sortzen ditu, eta minbiziaren mehatxuaz gehiago jabetzen dira. Familiaren eta lagunen babesa funtsezkoa da.

MugarraTTko Ariznabarreta eta Frades garaipen bikoitzaren bila

Mugarra Triatloi Taldeak etxean ditu duatloia irabazteko faboritoetako bi



Ariznabarreta eta Frades, garaipenerako hautagai nagusienetakook.

> DUATLOIA J. D.

Bihar, Gorka Uribeetxeberriaren oroimenezkoa den duatloia jokatu dute, Durangon. Mugarra Triatloi Taldea da antolatzailea, eta talde barruko duatleta bi dira maila absolutuan irabazteko faboritoetakoak: Gurutze Frades iurretarra emakumeetan eta Oier Ariznabarreta durangarra gizonetan: “Gaitza izango da, maila handia dagoelako, baina polita litzateke garaipen bikoitza lortzea”, onartu du MugarraTTko Serafin Bereziartua ‘Txela’-k.

Itxaropentsu egoteko arrazoiak dituzte. Distantzia laburreko duatloia da (10-35-5), eta Gurutze Fradesek Euskadiko

txapelketa irabazi berri du neurri horretan. Oñatin jantzi zuen txapela, joan zen asteburuan. Bere ibilbideko hirugarrena du. Aurreko biak Durangon lortu zituen, 2012an eta 2013an.

Oier Ariznabarretak lehenengo garaipena luke Durangon. Kros denboraldi bikaina osatuta, duatloietan ere indartsu dabil. Orain asteburu bi, Eibarko duatloia irabazi zuen.

Guztira, 200 parte-hartzaile batuko dira. Emakumeen proba 15:30ean hasiko da, Ezkurdin, eta gizonena 15:40an. Lehenengo, Orozketara birritan egingo dute joan-etorria, korrika. Ondoren, bizikletan Elorrio, Miota, Garai eta Goiuritik itzulia egingo dute. Korrikako azken tartea Durango barruan da.

7-14 urte artekoentzako duatloiak ere antolatuko dituzte, 13:30etik aurrera, urtero legez. Izen-ematea Ezkurdin egin daiteke 09:00etan hasita.

ADITUAREN TXOKOA

ENERITZ ITURRIAGA

Elkar Kirolak emakumeen taldeko zuzendaria



Non dago profesionaltasuna?

Orain 15 urte, nire bizitzako erabaki garrantzitsu bat hartu beharra izan nuen. Benetako txirrindulari profesionala izan nahi banuen, Europa mailara joan behar nintzen.

Pentsatu eta egin! Beti izan naiz gauzak argi eduki dituen pertsona, etxean ikasitako diziplinak lagunduta. Gogoan ditut Italiako lehen hile kaxkarrak: entrenamenduen gogortasuna, taldekideen arteko lehia, eta, batez ere, bertan zegoen profesionaltasuna.

Hemen bizi izandako guztiak ez zuen zerikusirik hango txirrindularitzarekin, eta moldatu beharra izan nuen. Eta bai, profesionaltasuna. Hori da askotan desberdintzen gaituen hitza. Imaginatu une batez, zure lankidearekin arazo asko eduki eta gero, lanean elkar ikusten duzuela, arazorik barik? Gai izango zinatekete hori egiteko? Gogorra ezta? Gaur egun dauden arazo guztiekin...

Horrek markatu egin ninduen, eta erreflexio puntua izan zen. Urteak joan ahala, gero eta profesionalago bihurtu nintzen, eta ate ugari zabaldu zizkidan. Ikasi nuen bai, eta oso ondo, bizikleta gainean talde bat ginela, baina hortik kanpo ez genuela zertan lagunak izan. Hori izan da beti desberdindu nauena kirol honetan, eta horregatik, horixe bera da nire taldeko neskei erakusten didian lehen puntua.

Orain, lan eta talde inguruetan, profesionaltasun falta ikusten eta bizitzen ari naiz. Oraintsu gertatu zaidan moduan, jende askok ez ditu desberdintzen laneko arazoak hortik kanpoko bizitzagaz. Gertatuak gertatu, beti burua altxatuta defendatuko ditut nire postura, idealak eta 10 urtez bizikletan Europa mailan igaro ditudan gauza on eta ez hain onak. Hori da eduki dudana bizitzaren ikasgairik politena. Profesionaltasun hori daukagunok, bizitza beste modu batera bizitzen dugula, egon seguru. Esperientzia hori probatzen animatzen zaituztet!

Urrutia neba-arrebak Euskadiko txapeldun

> ESKALADA J. D.

Euskal Mendizale Federazioak antolatuta, Euskal Herriko Bloke Txapelketa eta Bizkaiko Opena jokatu zituzten, joan zen zapatuan, Bilboko Piugaz boulderrean. Elorrioko Erdella MT-ko eskalada taldeak hainbat ordezkari izan zituen, eta gazte mailetan emaitza bikainak lortu zituzten.

Aitziber Urrutia, 16 urtez azpikoan, eta Martin Urrutia, 18 urtez azpikoan, Euskal Herriko txapeldun geratu ziren, eta Bizkaiko opena ere irabazi zuten. Neba-arrebak dira. 14 urtez azpikoan, berriz, Jone Garitao-

nandia nesketan eta Borja Bernalte mutiletan Euskal Herriko azpitxapeldun geratu ziren, eta Bizkaikoa irabazi zuten.

Aparteko aipamena merezi du Marta Kamararen lanak. 15 urte gaz maila absolutuan parte hartu, eta Euskal Herriko txapelketako podiumera igotzea lortu zuen, hirugarren postuan. Bizkaiko Openeko bigarrena izan zen.

Gaztetxoenen artean ere badago nor goraipatu. 12 urtez azpiko mailan, Ainhize Belar Bizkaiko lehenengo postuan geratu zen, eta Amaia Gaubeka hirugarren.



Goian Martin Urrutia erdian, eta behean Aitziber Urrutia erdian.

Markel Rodriguez hirugarren Espainiako Kopan

> TXIRRINDULARITZA M.Z.

Markel Rodriguez txirrindulari abadiñarrak hirugarren bukatu du kadete mailako pistako Espainiako Kopan. Maila honetan lehen urtea duen txirrindulariak Bizkaiko selekzioarekin lehiatu ditu Galapagarreko, Mallorcako eta Tafallako lasterketak.

Pasa den asteburuan izan zuten azken lasterketa, Tafallan, eta Bizkaiko txirrindulariak sasoi betean dagoela erakutsi

zuen. Puntuaketa proban, tropelari aurre hartu eta hainbat itzuli bakar-bakarrak egin ondoren, erraz irabaztea lortu zuen.

Horrez gain, hiru jardunaldietan erakutsitako erregulartasunari esker, hirugarren postuan amaitu zuen.



MARKEL RODRIGUEZ

Markel Rodriguez ez zen izan podiumera igo zen bakarra. Ziortza Isasi elorriarrak bigarren postuan bukatu zuen jardunaldia.

Garciak aseguru barik lehiatzeari uko egin dio

Ondorioz, taldeak kaleratze gutuna bidali dio

> TXIRRINDULARITZA J. D.

Egoitz Garciak (1986, Atxondo) Al Marakeb taldeagaz kontratua sinatuta du. Orain 15 egun, Aljerian denboraldiari ekiteko prest zegoela, bere taldeak Espainiako federazioan ez ziola lizentziarik eta asegururik tramitatu jakin zuen. Ez berari eta ez Alain Santamaria taldekide errioxarrari. Biek etxera itzultzea erabaki zuten: “Ez genuen

arriskatu nahi”, dio. Ondoren, “askotan” saiatu da taldeko ordezkariekin hitz egiten, egoera bideratzeko. Dokumentuak bialduz gero, bera prest zegoen tramitazioa egiteko. Erantzunik ez, astelehenera arte: kaleratze gutuna bidali zioten Aljerian lehiatzeari uko egiteagatik. Ez du sinatzeko asmorik, eta kasua UCiren aurrera eramateko asmoa du.



Lehior Elorriaga

“Beste familia batzuk hondartzara joaten ziren moduan, gu kart-ean ibiltzera joaten ginen”

Autoa, errepidea eta erronka bat; Pedro eta Igor Urien aita-semeek ez dute gehiagorik behar beren pasioari bidea emateko

> ELKARRIZKETA J. Derteano Automobilismoa zaletasuna baino gehiago da Pedro (1960, Berriz) eta Igor (1994, Abadiño) Urienentzat: pasio handiz bizi duten mundua da. “Asteburuan kotxean ibiliko naizen ilusioagaz pasatzen ditut astegunak”, dio Igorrek. Pedro, bere sasoian, pilotua izan zen. Bide bera hartu zuen semeak, eta Europako txapelketa lehiatzera heldu zen, diruak talentuaren adinako garrantzia duen zirkuitu zoroan. Finantziarioa aurkitzea odisea da, eta aitak, amak eta hirurek ‘mirariak’ egin behar izan dituzte, urtero urtero, Igorrek bolantea izan zezan. Lan nekagarria da motor munduko establishment-etik kanpora dagoenarentzat. Aurten, bere ibilbideari buelta bat ematea erabaki du Igorrek. Euskal Herriko txapelketako lasterketak lehiatuko ditu: “Gozatzea dut helburu”. Hutsetik hasi duten prototipo berriari buru-belarri lanean aurkitu ditugu aita-semeak:

Urte eta erdi zabiltzate auto honetan lanean. Zelan moldatzen zarete? Eztabaida asko? Pedro Urien: Bueno, azkenean

autoek egitura jakin bat dute, eta eskema horri jarraitu behar zaio. Beraz, gauza asko diren modukoak dira. Gainerakoan, betidanik egin ditut kart-ak Igorrentzat, eta badakit zer nahi duen. Kart-ean ibili zen sasoian, berbarik egin barik ulertzen genuen elkar; aurpegira begiratu, eta banekien zer gura zuen. Orain, berdin. Hori abantaila bat da.

Zelakoa izango da autoa? Zer aurreratu dezakezue?

P.U.: Igorrek lasterketetan pilotutako esperientziagaz, nik da kidanagaz, eta bion artean urteetan ikasi dugunagaz, zerotik abiatutako proiektua da. Detailak baino ez zaizkio falta. Aste Santu ostean, lehen probak egitea gura genuke. Barketa baten esekidura, egitura tubularra... izango ditu, baina Formulako teknologia gehituta. Baina, Europan, antzerako adibide asko daude. Azken batean, Igor eta bion esperimentu bat da. Egoskorkeriatik ere badu: “Egingo dugu? Zergatik ez!”. Baliabide askorekin eta 10 mekanikarigaz errazagoa da. Baina abentura honetan... gu biok gabiltza. **Igor Urien:** Gure proiektuan, mekanika aldeko gastua ez da

hain handia, eta eraikuntza lan dena geuk egiten dugu. Bestela, auto garestiekin, edozein arazok diru asko eskatzen du. Eta aurrekonturik barik ezin daiteke lehiakorra izan. Guk egoera hori bizi izan dugu, eta ez dugu horrelakorik gehiago nahi. Talde handietan eta inoren menpe egon behar duzu, eta ez du merezi.

Maila handietan finantziarioa bilatzea odisea bat da, ezta?

I.U.: Bai, maila horietan lehiatzeko diru-laguntzak aurkitzea oso gaitza da. Motor munduare-

“**P.U.:** “Hemen ez dago motorrarekiko kultura handirik, Katalunian bai”

“**P.U.:** “Momentuz, etxeko baliabideak erabiliz jarraitzea erabaki dugu”

kiko kultura handirik ez dago hemen, Katalunian gertatzen den kontrara, esaterako.

P.U.: Katalunian eta Madrilen askoz errazagoa da. Katalunian eta Valentzian, esaterako, motorraren inguruko kultura itzela dago. Hau da, edozein tokitara babesletza edo diru-laguntza eske zoazenean, badakite zertaz ari zaren berbetan. Hemen, zerotik hasi beharra dago, ez du telako mundu hau ezagutzen. Penagarria da, Euskadin itzelezko afizioa dago eta. Bizkaian indar handia du automozioak, baina...

I.U.: Horixe da ni harritzen nuen. Euskal Herrian automozioak indar handia du, eta jende asko bizi da hortik, baina, hala ere, kultura hori falta da.

P.U.: Eta ez enpresetan bakarrik. Antzerakoa gertatzen da hedabide batzuetan ere. Futbola eta beste bi-hiru kirol nagusietan zentratzen dira. Ez dute mundu honetako filosofia ezagutzen, eta ez dira sartzen. Alonso, Hamilton eta gutxi gehiago. Baina, interesa behar da benetan zelan funtzionatzen duen jakin eta ikasteko. Hori ere beste harresi bat da.

I.U.: Beste kirol batzuekin ere gertatzen da. Beitu Alex Txiko-

nek zelako lorpena izan duen — Nanga Parbat zortzimilakoa neguan igo duen lehen alpinista izan da — eta zer oihartzun izan du hedabideetan? Txikia. Cristiano Ronaldoren gol batek hamaika titular izaten ditu.

Autoak eta motorra, pasioz bizi duzuen mundua da.

P.U.: Igor umea zela, hobby moduan hasi ginen hirurok: aita, ama eta semea. Asteburuetan, familia batzuk hondartzara joaten ziren moduan, gu kart-ean ibiltzera joaten ginen.

Gero, semea hazten joan zen, eta erantzukizunak ere bai.

P.U.: CM bategaz hasi ginen zirkuituetan. Aita eta ama mekanikari, eta bera pistan. Eta autotik jaisten zenean, bera ere mekanikari. Baina, gero, gehiagora joan zen. Maria de Villotaren eskolan sartu zen, eta Formula BMWa lehiatu zuen. Horrek dependentzia sortu zigun. Ez zen etxeko gauza bat, kanpoko talde profesionalen baitan geunden. Jakina, hori negozio bat da, eta diru kopuru bat bermatu beharra duzu. Lortu genuen bitartean, ondo. Amaitu denean, beste erabaki bat hartu dugu: momentuz, etxeko baliabideekin

jarraitzea. Aurrera jarraitzeko modua da. Hor gabtizan bitartean, zerbait sortzen dela? Aurrera horrekin ere.

Igor, pistan zu baino geldoa-goak diren pilotuak bestelako baliabideei esker gora heltzen direla ikusteak frustrazioa eragiten du?

I.U.: Bai, argi dago frustrazioa eregiten duena, baina, azkenean, beti gertatu izan den zerbait da. Beste askori ere gertatu zaie. Ez gara lehenengoak, eta ez gara azkenak izango. Baina, Kartetan hasi ginen, eta zenbatek esan dezakete Formula 3an denboraldi oso bat egin dutela? Ni horregaz geratzen naiz. Espainiatik nire adineko bi-hiru aritu ginen maila horretan, eta gure baliabideekin horrelako txapelketa batean parte hartu izanagatik pribilegiatu bat naizela uste dut.

Pedro, semeak esan izan du sarritan errepikatu diozula oinak lurrean izateko. Zeure esperientziatik diozu?

P.U.: Nire ere gertatu zitzaidan-eta. Nire sasoiaren eta nire neurrian, motorretan lehiatzen nintzen, eta heltzen zen une bat ezin genuela aurrera egin. Beti gauza berdina esaten diot Igorri: "Irten eta gozatu". Momentua aprobetxatu behar da. Beti zer gertatuko den kezkatuta bazau, unea bizitzea ahazten zaizu.

Gogoratzen duzu semeak bolantea hartu zuen lehen aldia?

P.U.: Etxeko eskabadora handiarekin. Hiru bat urte izango zituen. Bera ez da akordatzan, baina ama bai, eskabadora mar txan ipini zuen-eta! (irribarrez). Motor txiki bat ere bazuen hiru urtegaraz. Ondoren, kart-ean, lau-bost urtegaraz lehenengoz.

Igor, etxean halako erreferenteak izanda, autoen mundua umetatik arnastu duzu. Autoen mundua zuk aukeratu duzu, ala berak aukeratu zaitu zu?

I.U.: Ez dakit, baina motorra izan duen guztiaren zalea izan naiz beti. Beti erakarri naute.



Pedro Urien barketa gorriaren bolantean.

Agian, horretan abila nintzelako? Baliteke, ze futbolearen benetan eskasa naiz (barrez).

P.U.: Edozelan ere, nik ezagutzen ditut motorrean profesional izandako lagunak, eta euren seme-alabek mundu horri buruz ezer jakin gura ez dutenak.

Aitak ibilbide luzea izan du motorretan eta autoetan. Badakizu bere historia? Kontatu zalea da?

I.U.: Beste batzuek kontatu izan didatenagatik gehiago dakit berak kontatu didanagatik baino. Inoiz aipatu dizkit, baina ez da horretan behin eta berriro tematzen den horietakoa.

P.U.: Gurea beste istorio bat zen. Gaur egun motorra hartu, eta mendira buelta bat egiten dutenen antzekoa. Kontua ez zen derrigor helburu batzuk lortzea, lasterketa kopuru bat irabaztea, edo profesional izatea. Katxarro zaharrek irten eta ondo pasatzea, horixe zen.

Eta, aurten, zure Simca-ri surik aterako diozu igoeretan?

P.U.: Igoeren txapelketako lasterketa batzuetan parte hartzea da asmoa, bai, baina ikusiko dugu. Beharbada, Igorrek prototipoagaz igoeretan parte hartuko du, puntuan ez dagoela ikusten badugu. Eta ni laguntzen.

Inoiz ikusiko ditugu aita-semeak lasterketa berean elkarren kontra?

“

I.U.: “Egiten dudana, dena, gero, kotxean hobeto ibiltzeko egiten dut”

“

I.U.: “Euskal Herri mailako motorrean beste gertutasun eta giro bat daude”

I.U.: Igoeretan posible litzateke Simcak eta prototipoak, biek, parte hartu dezaketelako. Baina, ez dakit zelan ibiliko ginen asistentzia kontuagaz.

P.U.: Logistika da arazo nagusia. Simca-gaz nabilenean, berak laguntzen dit, edo alderantziz. Baina biok batera ibilita...

I.U.: Baina polita litzateke.

P.U.: Edozelan ere, bere kaltetan litzateke, ze egurra emango nioke! (Igorren begirada).

Nik kontrako apustua egingo nuke.

I.U.: Tira, gazteok zartada handiagoa dugula esango nuke, eta galtzeko amorru hori ere gehiago sentitzen dugula. Adin batekin aurrera, disfrutatzea da kontua, beste ezer baino gehiago.

P.U.: Ikusi egin behar bakoitzak



Igor Urien kart horia gidatzen lau-bost urte zituela.

zer auto darabilen. Ez pentsa, Igor Simca probatutakoa da, eta badaki ez dela erraza hura gidatzea.

I.U.: Beste sasoi bateko autoa da.

Euskal Herriko Rally Txapelketa hasita dago dagoeneko...

I.U.: Bai, Gabiriakoa eginda dago.

P.U.: Aurtengo helburua ez da txapelketa oso bat lehiatzea. Kantabriako txapelketan, nazional mailan, aukerarik sortzen bada, autoa probatzea eta apurka hobetzea da asmoa, hurrengo denboraldira begira proiektua sendotzeko. Baina, egunean egunekoa bizita. Nork daki, ba, datorren urtean zer gertatu daitekeen?

I.U.: Mundu honetan ez dakizu zer gertatuko den hurrengo urtean. Horregatik, ez da komeni epe luzeko planak egitea.

Igor, esperientzia zabala duzu autoen munduan, baina, oraindik, 21 urte dituzu. Ibilbide luzea aurretik. Zer eskatzen diozu etorkizunari?

I.U.: Korritzen dudana bitartean, pozik ibiliko naiz. Asteburuan kotxean ibiliko naizen ilusioagaz pasatzen ditut astegunak. Hori kenduta, lehertu egingo nintzateke barrutik. Behar duan zerbait da. Hori barik, ez nuke jakingo zer egin. Bizikletan ibiltzen naiz, baina ez nau betetzen. Bizikletan irten naiteke, baina, autoan hobeto ibiltzeko entrenamendu modura. Egiten

dudan dena kotxean hobeto ibiltzeko da.

Zure semea horrelakoak esaten entzuterakoan, zelanbait zure burua ikusten duzu adin horretan?

P.U.: Bai, hauxe delako bizi guztian egin duguna. Ez dago zertan Formula 3 batean lehiatu gozatzeko. Euskal Herriko Txapelketa batean, beharbada, gehiago disfrutatu daiteke.

I.U.: Giro onean zabiltza, eta, azkenean, horixe da bilatzen dena. Europako txapelketetan, diru asko mugitzen denez, presio handia dagoenez eta emaitzak lortzeko behar hori dagoenez, jendearekin dagoen giroa ez da berdina. Beren lana egin ostean, etxera doaz denak. Hemengo jendeagaz, ostera, kafe bat hartzeko geratu zintezke, barre batzuk egin... beste gertutasun bat dago. Aurrekontuan-eta presio gutxiago izatera, gehiago gozatzan duzu.

Zelan egokituko duzu zure gidatzeko modua zirkuitutik errepidera?

I.U.: Oraindik ezin dut esan, baina uste dut, motorrean, edozein espezialitate dela ere, badagoela oinarritzeko teknika bat denetarako balio duena. Bizitza osoan ikasi eta barneratutakoa zeurekin daroazu beti, zoazen tokira zoazela. Gero, teknika hori findu eta doitu beharra dago, jakina.

Adinara Urreta Jainaga
OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ **MAPFRE**

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

katerin ardoak
inaki uribe
saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardoteia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com



GREMIOEN GIDA



ARKITEKTURA

**ARKI
TEK
SAN**

- OBREN ZUZENDARITZA
- PROIEKTUAK / BIRGAITZEAK
- ERREFORMA ETA GARAPENERAKO
- NEGOTIO LOKALEN PROIEKTUAK
- ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK
- NEURKETAK, PLANOAK
- ETA AURREKONTUAK EGITEA
- ERAGINKORTASUN
- ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK

WWW.ARKITEKSAN.COM
622 745 419
NIZETO URKIZU 12. ELORRIO
INFO@ARKITEKSAN.COM



GARBIKETA

**AZKARGI
GARBIKETAK**

Auzo elkarte, garaje
eta obra osteko garbiketak

Goietia, 46 - 2 esk. ELORRIO
Tel.: 615 791 215



LOREZAINNTZA

Jardines
Patxi
Lorategiak

Mantenua eta diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Montevideo, 23-1 ezk DURANGO
PATXI: 696 463 085



ITURGINTZA

Mallabiena 

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA • Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com


Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO
188 PK.



DEKORAZIOA

JAIObarnizatuak

Markoen, ateen, zokaloen,
armairu aurrekaldeen eta
era askotariko altzairuen lakadura.

Pintura eta pintura apaingarria.

Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A • BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 • Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**

Irene Gurtubai (Elorrio, 1987 | 'Pikadero' filmaren ekoizlea

“Egoerak dira, film honetan, barregura sortzen dutenak”

Elorrion emango dute Ben Sharrockek zuzendu eta Gurtubaik ekoitziriko 'Pikadero' filma, asteburuan

> ZINEMA Itsaso Esteban
Atzerriko jaialdietan erakutsi eta gero, zure herriko zinemara ailegatu da 'Pikadero'. Zer sentipen sortzen dizu horrek?

Oso pozik gaude filma Euskal Herriko zinemetan ikusgai dagoelako. Munduko zinema jaialdi askotan erakutsi dugu azken hilabeteotan filma, eta, ahal izan dugunetan, pelikularekin batera joan gara geu ere: Europako, AEBetako eta Asiako jaialdietan erakutsi dugu *Pikadero*.

Zelan lortzen da zure filma, esaterako, Georgiako jaialdi batean erakutsi ahal izatea?

Filmak aurkezteko epea zabaltzen dute antolatzaileek, eta programatzaileek egiten dute hautaketa. Denetik egoten da jaialdi gehienetan: gurea bezalako film txikiak zein handiak, mundu guztiko ekoizpenak.

Zelako erantzuna jaso duzue atzerriko zinema jaialdietan?

Oso ona. Jaialdi gehienetan egoten da filma ikusi osteko solasaldia, eta jendeak oso ondo hartu du gure lana. Herrialde

desberdinetako publikoak pelikulako umoreagaz barre egitea oso gauza polita izan da.

Zelakoa da filmeko umorea?

Ben zuzendaria eskoziarra izanda, batzuek esaten dute ikutu ingeleseko umorea dela. Baina, nire ustez, oso euskalduna da filmeko umore mota: pertsonaien elkarriketetan ez dago txisturik, egoerak dira, film honetan, barregura sortzen dutenak.

Baina, pelikulako gaiak barregarritik gutxi dauka...

Krisiaren eraginak ez dira barregarriak, baina pertsonaiek egoera horri zelan erantzuten dioten izan daiteke komikoa. Barbara Goenagak eta Joseba Usabiagak antzezten duten bikoteak, krisiaren eraginez independizatu ezinda, elkarrekin egoteko lekua, *pikaderoa*, zelan bilatzen duten kontatzen du.

Euskal Herriko gazte askoren errealitatea, zinegile eskoziar batek kontatua.

Bikotekide ere bagara Ben eta biok, eta, azken urteetan, Edin-



Munduko zinema jaialdi askotan erakutsi dute azken hilabeteotan, 'Pikadero'.

burgon eta Euskal Herrian bizi izan gara. Hemen ezagutu zuen Benek *pikadero* berba, barregarria iruditu zitzaion, eta hortik tiraka idatzi zuen gidoia.

Zure ekarpen asko ere izango ditu, baina, gidoiak.

Bai, ekoizle gisa, gidoiaren sormen prozesuan ere parte hartu dut ideiak eta iritziak emanez. Neuk itzuli nuen gidoia, eta itzultzaile lana egin dut bilera askotan. Buruz ikasi zuen Benek euskarazko gidoia, baina ondoan izan nau filmazioan ere, hizkuntzagaz laguntzeko.

Hasieratik erabaki zenuten euskaraz izango zela filma?

Bai, hemengo istorioa izanda, gauza oso naturala izan da euskaraz grabatzea. Zuzendariak ez daki euskaraz, baina gaztelaniaz ere ez, eta beraz, batera zein bestera, zailtasun berberei egin behar genien aurre.

Zinema kritikarien laudorioak jaso ditu filmak.

Oso pozik gaude. Kritika oso positiboak idatzi dituzte aldizkari espezializatu zein egunkarietan, eta jendea filma ikustera animatzen lagun dezake horrek.

Zein da, zure ustez, filmaren indargune nagusia?

Film hau desberdina dela, hemen, lehenago egin direnetatik. Uste dut hori ona dela edozein zinema industriarentzat.

Zertan da desberdina?

Estilo aldetik da desberdina; bereziak dira istorioa kontatzeko modua, aktoreen lana eta filmeko umore mota. Krisiak Euskal Herriko bikote baten bizitzan zelan eragiten duen kontatzen du. Film oso humanoa da, harremani buruzkoa, eta leku guztietan ulertzen da hori.

Zilar Astea amaitzeko, Komiklub fanzineari buruzko erakusketa bat

90eko hamarkadan sorturiko proiektua gogoratuko dute, Plateruenean



Durangaldeko komikizale eta komikigileen topaleku izan zen, 1994tik 2001era, Komiklub fanzinean.

> LITERATURA I.E.

Komikigintza ardatz hartuta antolatu dute Zilar Astea, Plateruenean, aurtten. Unai Iturriagaz, *Udaberririk ankerrena* bere komikiaren inguruko solasaldia egin zuten atzo, Plateruenean; eta asteen zehar, Eñaut Aiartzaguena marrazkilari iurretarrak komikigintzari buruzko saioak eskaini ditu, Durangoko eta Iurretako ikastetxeetan.

Martxoaren 20an, domekan, Platerueneko eguerdiko jan-danerako eskaintza osatuz, komikigintzari buruzko azoka eta erakusketa antolatu dituzte. 1994tik 2001era arte Durangon kaleratu zuten Komiklub fanzinen ingurukoa izango da erakusketa: fanzinen aleak, marrazkiak, irakurleek bidaltzen zizkieten gutunak, publizitate moduluak... izango dira ikusgai.

Durangaldeko komiki eta marrazkigileen elkargune izan zen Komiklub fanzinean. Besteak beste, Jon Roman, Alex Olabarri, Rober Garay, Ismael Iglesias, Xabier Etxeita, Anartz Aranguena edo Ander Lauzirika izan ziren proiektuaren bultzatzaile eta kolaboratzaileak. Arte Ederak ikasten hasiberriak ziren gazteak ziren eurretariako asko.

Komiklub fanzinen ale bi kaleratzen zituzten urtean, eta gaztelaniaz zein euskaraz idatziriko umore beltz eta kritika zorrotzeko binetak izaten ziren.

Domeka honetakoaren aurretik, Durangoko Museoa ere egin zuten Komiklub-en inguruko erakusketa bat, orain urte batzuk. Eta proiektuaren inguruko informazioa webgune honetan ere ipini zuten ikusgai: www.komiklub.wordpress.com.

Gorka Urbizu (Iruñea, 1977) | Peiremans+ musika taldeko abeslaria



Laukoteak geldiune bat hartuko du Durangoko Plateruena kafe antzokian larunbatean emango duen kontzertuaren ostean.

> MUSIKA Paul Bustindui

Hamar urteren ondoren, hiru kontzertu jotzeko taularatu zen, berriro, Gorka Urbizuk, Imanol Ubedak, Marino Goñik eta Txikik osatutako Peiremans+ taldea. Azaroan eman zituzten zazpi kontzertuetan jendearen harrera ona ikusita, CDa kaleratzeaz gain, beste hiru kontzertu jotzea pentsatu zuten. Azkena, larunbatean joko dute, Durangon.

Plateruena aukeratu duzue azken kontzerturako. Durangon beti jo izan duzue gustura...

Bai. Oso gustura izan gara beti, Euskal Herriko aretorik kutunenetakoa baita. Bestalde, Durango beti izan da euskal kulturaren herri garrantzitsua. Tamainaren aldetik ere egokia ikusten genuen, zapatukoa izango baita Peiremans+ taldea zuzenean ikusteko azken aukera.

10 urteren ondoren, zerk piztu zizuen itzultzeko gogo?

Twitter bitartez, jende askok gogorarazi zigun taldearen 10. urteurrena zela. Afari batean geundela, azaroan pare bat kontzertu ematea adostu genuen. Beroaldi bat izan zen. Hasieran pare bat kontzertu ematea espero genuen arren, azkenean,

“10 urte igaro eta gero, publikoak harrera bikaina egin digu”

Bihar, Plateruenean, birako azken kontzertua emango du Peiremans+ taldeak

gehiago izan ziren, jendeak harrera itzela egin zigun eta. Zazpi kontzertu jo eta gero, erreperiorako prestatu genituen bost abestiekin EP bat egitea bururatu zitzaigun. Eta honekin batera, azken hiru kontzertuekin gatoz. Hamar urteren ondoren, harrera paregabea izan dugu.

Realak fitxatu, eta lesio baten ondorioz futbola utzi behar izan zuen Peiremans jokariak ematen dio izena taldeari. Zer dela eta keinu hori galtzaileari? Galtzaileek beren xarma propioa daukate. Gizarte konpetitiboegi batean bizi gara, non jarduera guztietan lehen postua lortzea ezinbestekotzat jotzen dugun. Eskakizun handi honetan, denoi suertatu zaigu, noizbait, Peiremans galtzailea izatea. Era berean, + keinuaz positibotasuna adierazten diogu.

“Huts egin duzu inoiz? Lasai, ez dio axola. Saiatu berriro. Huts egin berriro”, zioen Samuel

Beckett idazle irlandarrak. Gaur egungo musikagintzan arrakastaren behar hori nabaritzen duzue?

Ahalik eta musikarik onena egiten saiatu behar dugu. Egia da talde askok, presaren poderioz, berehalako ospea bilatzen dutela, eta horrek ez luke musika taldeen helburua izan behar. Musika egiteko elkartzeko denak, jomuga hori baino ez badauka, huts egingo du seguruenerik. Bidean zehar gozatzea izan behar-ko litzateke helburua, musikak bapateko plazerra ematen baitu.

Euskal Herriari dagokionez, beti egon izan da pop-a bigarren maila batean. Esan daiteke galtzaileen generoa dela?

Baztertuta egon da, doinu gogoragoak izan baitira nagusi. “No time for love” kantak dioen bezala, gure testuinguruan bizi izan dugun gatazka politikoarekin lekuri ez daukala ematen du. Gure ustez, pop-a gitarrarekin egindako melodia gogoan-

garri bat egitean datza, hiru minututan irribarrea sorraraziko dizun melodia popularra.

Egin duzuen azken EPa bost abestik osatzen dute. Nola lortzen da abestien arteko batasun musikala zuen ohiko generoa ez den batean?

Lehenengoaren antzeko diskoa da. Denbora kontuagatik, ezin izan dugu luzeagoa egin, beste zeregin batzuk baitaude gure taldeetan. Peiremans+ berriz martxan jarri, eta arrapaladan egindako EPa da “Bigarren Itzulia”. Kantak Imanolekin egiten ditut. Melodiarekiko zaletasun puntu bat dugu biok, eta letrik ere batasun bat ematen diote.

Betirako esango du agur Peiremansek asteburuan?

Asteburukoa diskoaren agurra izango da, aldi berean. Proiektu honekin oso ondo pasatu dugu, baina musika proiektu puntual bat da. Auskalo hamar urtera beste afari bat egiten dugun.

GEURE DURANGALDEA

JON IRAZABAL

Gerediagako kidea



Josune Olabarria

1982an, Gerediagan lanean hasi nintzenean, eskualdeko liburutegiekin ez zuten biltzen euren inguruari buruzko argitalpenik, eta ezer behar izanez gero, Bilbora joan behar zen. Aldundiko liburutegiko prozedura zela-eta, lau liburu begiratzeko goiz osoa behar zen.

“Hurrengoan zergatik ez goaz Erriberara, Jose Antonio-gana [Arana Martija]” esan zidan Jose Luisek [Lizundia] behin. Atari beltz batean sartu, eskailerak igo eta atea ikusita “erratu egin naiz, hemen ezin da izan”, pentsatu nuen. Badaezpada, txirrina jo eta... Euskal Herriko altxorrik handienetako bateko atea zabaltu zitzaidan, Azkue liburutegikoa. Liburuz betetako etxe hartan hiru pertsona aurkitu nituen paper artean: Jose Antonio Arana Martija, Josune Olabarria eta Nere Altuna. Horrela “jausi” nintzen, duela 30 urte, Bizkaiko eta Euskal Herriko kultur zulorik handienean.

Aipatutako hiru hamarkada hauetan ehunka bider joan naiz, hasieran Erriberara, eta gero Plaza Berrira, liburuak eta eskuizkribuak kontsultatzen, informazio bila edo barriketan egitera. Urte horietan hartu-eman oparoa izan dut/dugu, eta nobedadeak ere bizi izan ditugu; Jose Antonioren erretiroa eta heriotza, Pruden Gartzia zuzendari berri izendatzea, Neren erretiroa eta gaur, martxoak 16, Josunena. Betirako zelakoan, hau ere erretiratu zaigu. Faltan sumatuko ditut/ditugu bere aholkuak, baina ongi irabazia du, 37 urteko lanaren osteko atsedena. Bihotzez, Gerediagaren eta nire izenean, mila ez, milioika esker eman diguzun guztiagatik. Nire/gure lan eta garaipen askok zure sinadura dute. Esan beharrik ere ez dago gure ateak zabalik dituzula. Musu bat!

Letter
Eskutitz baten bidaiak / El viaje de una carta

Letter. Eskutitz baten bidaiak
Malas Kompañias Zirko Taldea
Martxoaren 20an, 18:00etan

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

TOPAKLOWN
2016
DURANGOKO KLOWN TOPAKETA
www.topaklown.com
Martxoak 23/27

San Agustín KULTUR GUINEA

PLATERUENA
Durangoko Kafe Antzokia
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300
www.plateruena.eus

JAT ETX EA
EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

MARTXOAK 18
19:30ean
AIKO ERROMERIA
DANTZALDIA

MARTXOAK 18
0:30ean
BYE BYE SCHOOL
LIVE & BEAT
JAIALDIA

PEIREMANS
MARTXOAK 18
22:30ean
PEIREMANS
KONTZERTUA

Euskal Herria ezagutzeko hamaika aukera daude. Aniztasun horretan, badaude edozein bisitarik alde batera utzi ezin dituen bi proposamen erakargarri: Gorbeiaiko Baias Garagardotegira bisita gidatua egitea, eta gure kulturen hain errotuta dauden herri kirolak eta pilota partidak taldean praktikatzea.



Gorbeiaiko Parke Naturalean, Baias Garagardotegira bisita

Garagardo naturalak zelan ekoizten diren azaltzen dute Baias Garagardotegian

> BEHARGINTZA

Metodo industrialak alde batera utzita, garagardo naturala ekoizten dute Oiardoko Baias Garagardotegian. Gorbeiaiko Parke Naturalean kokatuta da goen baserri batean garatzen da esperientzia berri hau.

Proposamena garagardotegira bisita gidatua egitea da. Egonaldi interesgarri honetan, bisitariari garagardo natural hauen inguruko informazio guztia emango diote. Ekoizleek garagardoaren ekoizpen faseak azalduko dizkiote, lehengaietatik hasi eta bukaerako produktua merkaturatu arte. Lantegia, fermentazio gunea, botilartzeko lerroa eta beste hainbat espazio ezagutuko dituzte. Bisita garagardo dastaketarekin amaituko

Kalitatezko lehengaiak erabiltzea da Baiasen lehentasuna

dute. Gozamenerako hitzordu paregabea eskaintzen dute.

Baias Garagardotegiak bederatzi garagardo barietate botilartzen ditu. Gainera, upeletan produktu bereziak ere ekoizten dituzte. 2008an sortutako familiarteko enpresa txiki honek hainbat errekonozimendu jaso ditu. Bartzelonan joan zen astean antolatutako nazioarteko txapelketan sari bi eskuratu zituzten: Baias Ita eta Baias Kerala garagardoak izan ziren epaimahaiak nabarmendu zituen bi garagardoak.

Baias erreka

Idoia Marañon Baiasen ekoizleak azaldu duenez, “bisita honetan, garagardoaren kultura bultzatzea dugu helburu. Horretarako, Baiasen garagardoa artisauek zelan ekoizten dugun azaltzen dugu”.

Garagardo honi Baias errekatik dator kio izena. Izan ere, erreka honek urez hornitzen du garagardotegia. Hain zuzen, kalitatezko lehengaiak erabiltzea da garagardotegi honetako arduradunen lehentasuna. Horretatik, lau lehengai naturalekin ekoizten dituzten produktuek artisauen irizpideak errespetatzen dituzte. Garagardoaren %95 ura dela kontuan hartuta, Baias izenarekin bete-betean asmatu dute.

Herri kirolak eta pilota partidak taldean praktikatzeak aukera

Aizkoran, harrijasotzen zein esku pilotan jardunez, Euskal Herria ezagutu daiteke

> HERRI KIROLAK

Euskal Herrian kirola eta kultura guztiz lotuta daude. Herri kirolak eta pilota uztartuz, euskal tradizioak ezagutzeko aukera eskaintzen du Global jaialaia. Xabier Gamarra Filipinetan pilotari aritutakoak eta Iranzu Arginzonizek taldeei bideratutako ekintzak antolatzen dituzte. Harrijasotzen, aizkoran zein pilotan jarduteko aukera paregabea eskaintzen dute.

Taldeei bideratutako ekintzetan, turista ugarik parte hartzen dute. Besteak beste, amerikarrek, japoniarrek, frantsesek zein belgikarrek euskal kultura ezagutzea eta gure kirol tradizionalak praktikatzea aukeratzeko dute. Euskal Herria sako-

Talde ekintza hauek Euskal Herriko edozein txokotan antolatzen dituzte

nean ezagutzea, alegia. Estatu mailan, katalan ugari hurreratzeko da herri kirolen mundura. Antolatzaileek diotenez, andaluziarrak ere gero eta gehiago dira. “Andaluzian Euskal Herria modan dagoela ematen du”.

Euskal Herriko edozein txokotan herri kirolak zuzenean ezagutzeko aukera eskaintzen dute. “Euskal Herriko edozein herriki frontoi edo plaza bat dauka, eta bezeroak aukeraturako ekintzak bertan antolatzen di-

tugu”. Hala ere, Getxoko Andra Mari frontoira hainbat talde bideratzen dituzte. Leku ederra izateaz gainera, eliza, frontoia, probalekua eta aparkalekua dituela gogoratu dute antolatzaileek. Donostiako Trinitate Plazan eta Bizkaia frontoian ere sarri ibili dira. Bartzelonan eta Madrilan ere antolatu izan dituzte ekitaldiak.

Leku eta egoera guztietara moldatzeko gaitasuna dute. “Nonahi eta noiznahi” da antolatzaileen goiburua.

Euskal Herrian ekintza antolatzen duten leku bakoitzeko profesionalak kontratatzen dituzte. Horrela, Euskal Herriko kultur eta kirol arloko sare zabal sortu dute.



Aste Santu honetan (asteburu honetan) ezagutu Euskadi esperientzia baten bitartez!

Informazio gehiago:

www.euskaditurismo.eus - www.viajesporeuskadi.es

EUSKADI

Topaklown, 10 ikastaro eta 8 ikuskizun, Aste Santua Durangon gozatzeko

Aurreko hiru edizioetan baino egun bat gehiagoz luzatuko da Topaklown, aurten: martxoaren 23tik 27ra

> ANTZERKIA **Itsaso Esteban** Martxoaren 23tik 27ra burutuko dute, aurten —azken edizioetan baino egun bat gehiagoz—, Topaklown jaialdia. Hamar ikastaro eta zortzi klown ikuskizun eskainiko zaizkie arloko profesionali, antzerki diziplina horren zaleei eta kulturazale guztiei. San Agustin kulturguneak eta bertako konpainia egoiliarra den

Ganso & Cia taldeak laugarren urtez antolatu dute Topaklown, Durangon, klownaren inguruan topagune bat eskaintzeko.

Ganso aktore eta antolatzailearen berbetan, “beste jaialdi batzuetan, helburu nagusia programazio zabala eskaintzea bada, gure kasuan, klownaren inguruan topagune bat sortzea da apustua; profesionali forma-

kuntza eskaintzea, eta zaleei eta publiko orokorrari ere mundu honetara hurreratzeko aukera ematea”.

Publikoaren zein arloko profesionalen partetik ere, aurreko urteetan jaso dutenaren pareko erantzuna jaso dute, aurten ere, eta Topaklown-eko ikastaroen izen-ematea da babes horren isla: 162 lagunentzako eskaintza

egin dute, guztira, eta lau egunetan bete dira plaza guztiak. Izan ere, ekimenaren antolatzaileek eta babesleek azpimarratu dutenez, “Euskal Herrian zein Estatuan ere, erreferentia bihurtu da, jada, Topaklown”, eta klownaren arloko Euskal Herriko, Europako eta Hegoamerikako maisu ezagunak izango dira ikastaroetan irakasle.

Bestalde, aurtengo edizio-
ra parte hartzera etorriko diren hainbat profesional arlo horretan jardundakoak direnez, klown sozialaren inguruko mahai-inguru bat ere antolatu dute. “Ospitalean daudenei, errefuxiatuak direnei, edo pobrezian edo bizi-baldintza gogorretan bizi direnei laguntzeko klowna baliatzen duten aktoreak” gonbidatu dituzte.

Aste Santuko egunetarako alternatiba oparoa da Topaklown, Durangon. Doakoak izango dira topaketako zortzi antzerki emanaldietatik bi; eta topaketako ikuskizun guztietara joateko asmoa duenak 25 euroan eskuratu ahalko du bonoa.



‘Grimegies’ obra eskainiko du Tortell Poltrona esperientzia handiko pailazo kataluniarrek, martxoaren 24an.

IKUSKIZUNAK

· Martxoaren 23an
22:00etan, **Puestos en libertad**
San Agustinen

· Martxoaren 24an
18:00etan, **Lullaby**
Musika Eskolan
21:00etan, **Grimegies**
San Agustinen

· Martxoaren 25ean
20:00etan, **Podemos**
conseguirlo
San Agustin kulturgunean.

22:00etan, **Cuerda**
San Agustinen

· Martxoaren 26an
20:00etan, **Vida clownyugal**
San Agustinen
22:00etan, **Topaklown**
kabareta
San Agustinen

· Martxoaren 27an
20:00etan, **Topaklown**
ikastaroen parte-hartzaileen
erakustaldia, San Agustinen

MAHAI-INGURUA

· Martxoaren 24an
16:30etan, **Clown social**, Musika Eskolan.
Tortell Poltrona, Wendy Ramos eta Sergi Claramuntegaz.

‘Dadnos precipicios’ lana aurkeztuko du Egon Soda seikoteak, Berrizen

Rock, folk eta pop kantak joko dituzte, martxoaren 19ko Berrizko kontzertuan

> MUSIKA I.E.

Iazko urrian kaleratu zuen *Dadnos precipicios* izeneko diskoa aurkeztuko du Egon Soda talde kataluniarrek, Berrizko Kultur Etxean, bihar, 20:00etan hasita. Hamar kanta biltzen dituen diskoa da *Dadnos precipicios*, taldearen hirugarrena.

Kataluniako eta Estatuko talde ezagunetan musika sortzen hamarkadak daramatzaten Ricky Falkner-ek, Xabier Molerok eta Ferran Pontonek sorturiko taldea da Egon Soda. Pablo Garrido, Ricky Lavado eta Charlie Bautista ere proiektura elkartuta, seikote gisa dihardute azkenaldian, eta formazio horregaz etorriko dira Berrizen kontzertua eskaintzera.

Ferran Pontón taldekideak landutako letra esanguratsuen gainean, rock independentea

egiten du seikoteak, folk eta pop ikutua duena. Pontonek azaldu duenez, disko honetako hamar kantak idazteko, Walt Whitman idazle amerikarraren poesia izan du inspirazio iturri.

Taldekideek eurek esana da, *Dadnos precipicios* disko honetarako, *El hambre, el enfado y la respuesta* edo *Egon Soda* aurreko lanetarako baino lan zorrotzagoa egin dutela.



Urrian kaleratu zuen Egon Sodak disko berria.

Break On Stage jaialdira joateko doako autobusa elorriarrentzat

> DANTZA I.E.

Apirilaren 16an egingo dute Arriolak antolatzen duen Break On Stage jaialdia, Bilbao Arenan. Emanaldia ikustera joan gura duten elorriarrek doako autobusa izango dute aukeran. Jesarleku kopuru mugatua egongo denez, izena eman beharra dago: Arriolara deituta (94 658 31 92), edo arriola@arriolaka.eus helbidera mezu bat bidalita eman daiteke izena. Apirilaren 16an, 19:00etan, hasiko da kale kulturen jaialdia, Bilbon, eta 17:30ean aterako da autobusa Elorriotik.

Otsailean Arriolan burutu zuten Aka Dantz jaialdia irabazi zuten Bilboko Be Hop eta Iruñeko Breathless taldek parte hartuko dute, besteak beste, Bilboko jaialdian.

Iurretan ariko da Doinuzahar abesbatza, martxoaren 20an

> MUSIKA I.E.

Jesus Egiguren musikagile durangarraren sorkuntzan oinarrituriko *Tenebrae-Ilunpetan* ikuskizuna eskainiko du Doinuzahar Durangoko kamara abesbatzak, domekan, 19:00etan, Iurretako San Migel elizan. Laura Nardiren zuzendaritzapean ariko dira abeslariak, Aste Santuko musika oinarri duen emanaldi horretan.

Tomas Luis de Victoria musikagileak XVI. mendean abesbatzerako konposaturiko musika sakroa, eta Egigurenek zinemako soinu bandak inspirazio hartuta sorturiko “musika eszenikoa” dira iaz aurkeztu zuten ikuskizunaren osagaietako batzuk. Victoriaren musika “soil, bare eta apala”, eta irudi eta sentsazio biziak eskaintzen dituen Egigurenena.



Etxebizitzak salgai 1, 2, 3 eta 4 logelatakoak



KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO

Durangoko herrigunean

Energia eraginkortasun handiko etxebizitzak

Hiriko txaletak

Oiz mendira begiratokiak

Leku zabalak

**Etorri
ikustera!**

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673

Kontsultatu beste aukerak Iurreta, Elorrion eta Durangon

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1.º ezk. • 48200 DURANGO
Tel.: 946 813 562

ETXEBIZITZAK ALOKAIKUAN

DURANGO. Bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilabetean 550€-tik hasita.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO. Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

DURANGO. Errotaritxueña Atiko zoragarria. 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

DURANGO. Mikeldi. 3 logelako etxebizitza, sukaldea balkoiarekin, 2 komun, egongela, ganbara eta garajea. Berria dirudi. Dotore.

DURANGO. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

ATXONDO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

DURANGO. -Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela eta komuna. 120.000.-

DURANGO. ARTEKALE. Azken etxebizitza, logela bat eta bikoa, trastelekuarekin. Prezioak 110.000€-tik hasita.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

DURANGO. 123 m2-ko etxebizitza erdialdean, ETXE OSOA KANPORA BEGIRA, berriztatuko. Zonalde pribilegiatua. Prezioa adosteko.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Apatia. Etxebizitza ederra 3 logelarekin, 2 komun, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela, etxe osoa kanpora begira. Garajea eta trastelekua. Berria dirudi.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIANO. Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalel bifamiliarr bat eraikitze lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

AMOREBIETA. LARREA. 27.000 m2-ko lursail ederra, dena partueta bakarrean.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO. GAZTELUA. Baseri ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m2-ko lursaila baserriaren ondoan.

BERRIZ. Txalela 1.200 m2-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

ATXONDO. Baseri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

IURRETA



- 3 logela, egongela, sukaldea jarrita eta komuna. Garajea eta trastelekua aukeran. **150.000€.**

BERRIZ



- 68m2-ko etxebizitza. 2 logela, egongela, sukaldea jarrita, komuna, balkoi. 4 m2-ko trastelekua eta garajea. **129.700€.**

SAN FAUSTO: Berriztatua.



- Etxebizitza 2 logelarekin, egongela, sukaldea jarrita eta komuna. **110.000€.**

MATIENA: Berriztatua.



- 2 Logela, egongela, sukaldea guztiz hornitua, komuna. Aparkalekua etxeko ate ondoan eta 9 m2-ko trastelekua. **99.000€.**

ZALDIBAR



- 3 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea jarrita, komuna eta 12 m2-ko ganbara. Prezioa **96.000€** / Negoziagarria.

SAN FAUSTO



- Berriztatuko. 55m2 erabilgarri. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. **77.500€** / Negoziagarria.

www.inmoduranguesado.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

SAN IGNACIO



- 100m. 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Zabala. Egongela terrazarekin. Garajea. Eguzkitsua. Solariuma. **256.000€.**

SASIKOA



- Etxebizitza altua. Dena berria. 80m. 3 logela. Komuna. Sukaldea balkoiarekin. Egongela Zabala. Dena berria, haritzeko arotzeria. Ganbara. Garaje itxia (aukeran). **199.500€.**

SAN IGNACIO



- 3 logela. 2 komun. Egongela terrazarekin. Sukaldea esekitokiarekin. Ganbara. Garajea. HEGOALDEA. Berriztatua. **255.000€.**

DURANGO (AUKERA)



- 3 logela. Komuna. Egongela. Eguzkitsua. **85.000€.**

ASKATASUN ETORBIDEA



- 110m2. 3 logela. 2 komun. Egongela eta sukaldea. 2 terraza. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua. Kanpoaldera begira. Orain: **250.000€.**


MATIENA



- 4 logela. Komuna. Sukaldea. Despentsa. Egongela terrazarekin. Garajea aukeran. **165.000€.** Negoziagarria.

LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIKUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIKUAN
ETA SALGAI DITUZUN
HIGIEZINEN BERRI
EMAN NAHI
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau
eskaintzen dizu**

Informazio gehiagorako:
Tel.: 946 217 902
publi@anboto.org

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 DENETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu: www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Bilbo. 76m2 erabilgarri. Kalitate ona. Egurra. Guztiz berriztuta. Garajea aukeran. Posta elektronikoa: bilbosalgai@gmail.com

Mallabia. Aukerakoa, nekazaritzarako edo nekazaritza-turismorako, toki eguzkitsu eta ederrean, 20.000m2 lursail. Prezio egokia, ikusi nahi baduzu, deitu. Tel.: 655-70 26 47 (19:00-21:00). Nahi izanez gero, aukera dago lursail gehiago eskuratzeko.

EROSI

Durango. Durangoko Txibitena auzunean etxebizitza erosiko genuke. Ez zaigu inporta eraberritzeko badago. Tel.: 652-71 83 38.

ERRENTAN EMAN

Abadiño. Muntzaratz auzoan pisua alokatzen da. Tel.: 655-73 29 28.

Durango. Durangon pisua alokatzen da. Hiru logela. 450 euro. Tel.: 680-94 92 05.

Zaldibar. Bikote batentzako aproposa. Estudio bat Zaldibar erdian. Tel.: 664-10 27 91.

ERRENTAN HARTU

Durango. Hiru logelako etxea alokatu nahi dugu Durangon. Tel.: 628-61 40 34.

Durango. Pertsona batentzako (logela 1 edo 2) etxea alokatu nahi dut, Durangon. Tel.: 645-70 10 87.

Durangaldea. Bikote batek eta alabak etxea behar dugu alokairuan, Durango edo inguruan. Tel.: 686-42 52 95.

ERRENTAN EMAN

Durango. Ibaizabal auzunean guztiz apaindutako lokala alokatu edo saltzen da. Edozein negozio jartzeko prest. Tel.: 600-26 73 73.

GARAJE / TRASTELEKUAK

SALDU

Otxandio. Otxandion garaje itxia saltzen da. Tel.: 675-71 72 83.

ERRENTAN EMAN

Durango. Txibitenan garaje partzela bat alokatzen da. Tel.: 615-71 88 01.

Teknologia

GAINERAKOAK

EMAN

Bidali zure ordenagailua. Zure ordenagailua hondatuta badago, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, jaso, konpondu, eta Federación Niños del Mundo elkartearen bitartez bidaliko dugu Boliviako eta Peruko ospitaletara eta eskoletara. Tel.: 655-71 76 66.

Lana - negozioak

LAN ESKARIAK

ETXKO LANAK

Elorrio. Emakume arduratsuak etxeko lanak egiteko eskaintzen du bere burua. Esperientzia handia. Erreferentziaduna. Tel.: 688-92 75 58. Posta: juliachans67@gmail.com.

PERTSONAK ZAINDU

Durango. Laguntzaile pertsonala behar da Durangoko pertsona bati Bilbora trenez joaten laguntzeko. Orduka: 8:10 Durangotik-Bilbora eta itzulia 13:30. Kontratuarekin eta alta gizarte-segurantz. Tel.: 690-28 60 71. Posta: elorrixak@yahoo.es.

Durangaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Garbiketan ere jarduten dut. Berehala hasteko prest. Tel.: 646-20 72 71.

Durangaldea. Lan bila nabil petsona nagusiak eta umeak zaintzen. Garbiketan ere bai. Astelehenetik ostiralera 09:15-16:00 eta asteburu osoa. Tel.: 609-88 79 21.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzeko, barneko edo kanpoko langile moduan. Tel.: 602-01 45 96.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 631-82 46 08.

Durangaldea. Barneko edo kanpoko langile moduan lan egiteko prest nago. Papelak ditut. Esperientzia handia. Tel.: 631-72 08 13.

Durangaldea. Andra euskalduna haur edo pertsona nagusiak zaintzeko prest; etxeko lanak ere egiten ditut. Erreferentziarekin. Tel.: 659-08 81 85.

Durangaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Garbiketan ere jarduten dut. Barneko zein kanpoko langilea. Asteburuetan zein orduka. Tel.: 632-06 83 88.

Durangaldea. Lan bila nabil petsona nagusiak eta umeak zaintzen. Garbiketan ere bai. Astelehenetik ostiralera lanaldi osoan,

goizez, arratsalde zain gauez. Orduka ere bai. Tel.: 665-72 37 24.

Durangaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Garbiketan ere jarduten dut. Tel.: 943-68 21 12.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Garbiketan ere jarduten dut. Tel.: 943-68 21 12 / 600-28 19 88.

Durangaldea. Neska arduratsuak bere burua eskaintzen du pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Astegunetan eta asteburuetan, baita gauez ere. Tel.: 619-67 60 44.

Durangaldea. Lan bila nabil, pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketan ere aritzen naiz. Astegunetan eta asteburuetan ere bai. Tel.: 632-31 49 55.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Garbiketan edo sukaldean laguntzen jardun dezaket. Aste bitartean zein asteburuetan. Barneko eta kanpoko langilea. Tel.: 602-14 17 66.

Durangaldea. Barneko zein kanpoko langile moduan jarduteko prest. Asteburuetan eta aste bitartean. Tel.: 632-50 63 82.

Durangaldea. Lan bila nabil, pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketan ere aritzen naiz. Astegunetan eta asteburuetan ere bai. Tel.: 632-31 49 55.

Durangaldea. Emakume arduratsua prest dago pertsona nagusiak zaintzeko. Garbiketan ere jarduten dut. Orduka eta asteburuetan ere bai. Tel.: 631-12 01 43.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Garbiketan ere jarduten dut. Barneko zein kanpoko langile moduan. Tel.: 632-50 63 82.

Durangaldea. Ekuadorreko neska haur eta pertsona nagusiak zaintzeko prest, etxeko lanak ere egiten ditut. Astegunetan eta larunbatetan. Esperientzia handia eta erreferentziak. Tel.: 665-72 37 24.

Durangaldea. Esperientziaduna eta geriatriako tituludun neska pertsona nagusiak zaintzeko prest. Ordu-tegi malgua. Tel.: 618-59 07 44.

Durangaldea. Emakumea prest pertsona nagusiak eta umeak

zaintzeko. Goizez edo gauez lan egiteko prest. Tel.: 622-95 74 59.

Durangaldea. Emakume arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Garbiketan ere jarduten dut. Barneko zein kanpoko langilea. Orduka ere bai. Tel.: 631-02 02 65.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen ditut, orduka eta gauean ere bai. Tel.: 632-16 37 82.

GAINERAKOAK

Durangaldea. Igeltserotzan, loregintzan, margoketan edo baserriko lanetan jarduteko prest nago. Tel.: 638-37 36 79.

Durangaldea. Igeltseroa, lehen mailako ofiziala, lan bila dabil obretan eta mantenuan. Esperientzia edozein motatako lanetan. Txofer eta mezulari moduan ere jarduteko prest. Tel.: 662-24 56 70.

Durangaldea. Psikologo euskaldunak laguntza psikologikoa eskaintzen du. Irakurketa-ulermen arazoak, antsietatea, depresioa. Tel.: 679-38 23 69.

LAN ESKAINTZAK

OSTALARITZA

Durango. Durangoko taberna batean lan egiteko zerbitzari eta sukaldari bila nabil. Bidali curriculum helbide honetara: taberna06@hotmail.com

ETXKO LANAK

Berriz. Etxe unifamiliar batean bizi gara, eta kotxea beharrezkoa da. Berriz herriko auzo batean. Lana 20 ordu inguru astean, eta ondo joanez gero, epe luzerako. Ordu-tegiarekin malgutasuna dugu. Tel.: 635 75 49 62 / 670 98 77 23.

Durangoko fisioterapia zentro batean pertsona euskalduna behar da lan egiteko fisioterapia titulua duena.

Tel.: 688-86 84 62

Denetarik

SALDU / EROSI

Txakurkumeak opari. Txakurkumeak opari. Tel.: 692-36 69 55.

Web orrialdeak egiten dira. Web orrialdeak egiten dira. Esperientziaduna. Konfiantza osoarekin. Tel.: 649-31 45 48 / 679-38 23 69.

Ibilgailuak

GAINERAKOAK

SALDU

Asia motorkia 4x4. Asia motorkia, lur orotakoa. 2200 motor diesela. Ekonomikoa. Zuntz eta olanazko kapota. Atoiarentzako eta osagarri-entzako bola. Beti garajea. Tel.: 946-82 45 90.

Aisia - kirola

KIROLAK

SALDU

Elorriion bizikleta bi salgai. Elorriion bizikleta bi saltzen ditut. Berri-berri daude, eta egoera onean. Bakoitza 650 eurotan saltzen dut, eta, horiekin batera, karreterako bizikleta klasiko bat oparituko dut etxean erabiltzeko gailuarekin batera. Tel.: 652-71 54 97.

EMAN

Bizikleta estatikoa oparitzen dut. Bizikleta estatikoa oparitzen dut. Tel.: 946-81 37 84.

Familia - etxea

HAURREN TXOKOA, OSAGARRIAK

SALDU

City Mini kapazorako bi zaku saltzen ditut. City Mini kapazorako bi zaku saltzen ditut. Bikientzat. Biak 40 eurotan. Tel.: 635-00 62 63.

anboto
komunikabideak

ANBOTO
astekariak
banatzaileak behar
ditu Zornotzan.

Tel.: 946 816 558
astekaria@anboto.org

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Martxoaren 18an, 22:30ean,
Elorriko Gaztetxean

Sei Urte + Kometa

Kometa hirukote nafarra eta Berrizko Sei Urte taldea gonbidatu dituzte Elorriko Gaztetxean 28. urteurrenaren harira antolatu duten egitarauaren barruan kontzertua eskaintzera. 'Grabitatea' diskoa aurkeztuko du Kometak; taldekide baten lesioagatik azken aldian zuzenean aritu barik egon eta gero bueltatuko da oholzetara Sei Urte.



Musika

:: BERRIZ

MARTXOAREN 19an

20:00etan, Egon Soda, Kultur Etxean.

:: DURANGO

MARTXOAREN 19an

22:30ean, Peiremans, Plateruenean.

:: ELORRIO

MARTXOAREN 18an

22:00etan, Sei Urte + Kometa, Gaztetxean.

MARTXOAREN 19an

22:30ean, Pixontxis + Dinero + DJ Itsua, Gaztetxean.

:: IURRETA

MARTXOAREN 20an

19:00etan, Doinuzahar kamara abesbatzaren 'Tenebrae-Ilunpetan', San Migel elizan.



Antzerkia

:: DURANGO

MARTXOAREN 20an

18:00etan, 'Letter: eskutitz baten bidaia', San Agustinen.

MARTXOAREN 23an

22:00etan, 'Puestos en libertad', San Agustinen.

MARTXOAREN 24an

18:00etan, 'Lullaby', Musika eskolako plazan.

21:00etan, 'Grimegies', San Agustinen.

MARTXOAREN 25ean

20:00etan, 'Podemos conseguirlo', San Agustinen.

22:00etan, 'Cuerda', San Agustinen.

MARTXOAREN 26an

20:00etan, 'Vida clownyugal', San Agustinen.

22:00etan, I. Topaklown kabareta, San Agustinen.

MARTXOAREN 27an

20:00etan, Topaklown erakustaldia, San Agustinen.



Dantza

:: DURANGO

MARTXOAREN 18an

19:30ean, AIKO erromeria, Plateruenean.



Kontalaria

:: BERRIZ

MARTXOAREN 19an

12:15ean, Maider Galarza, Kultur Etxean.

:: DURANGO

MARTXOAREN 18an

19:00etan, Angela Arboledaren (Ekuador) 'Rojos, con tacón alto' Herri Bibliotekan.

:: IURRETA

MARTXOAREN 18an

17:00etan (3-4 urte) eta 18:00etan (5 urtetik gora), Ines Bengoaren 'Kamishimai ipuinak', Bibliotekan.

20:00etan, Tania Muñozen 'Album de familia', Bibliotekan.



Berbaldia

:: ABADIÑO

MARTXOAREN 20an

19:00etan, 'Zer gertatzen ari da Kurdistanen?' berbaldia, Gaztetxean.

:: DURANGO

MARTXOAREN 24an

16:30ean, Tortell Poltrona, Wendy Ramos eta Sergi Claramunt, Topaklown jaialdiko mahai-inguruan, Musika Eskolan.



Natura

:: ABADIÑO (Urkiola)

MARTXOAREN 20an

11:45ean, zuhaitzak landatzea.

14:00etan, parrilada, aterpe handian.

15:30ean, bisitaldi gidatua, Santutegi ingurutik.



Lehiaketa

:: ABADIÑO

Martxoaren 31ra arte

San Prudentzio jaietako kartel lehiaketara lanak aurkezteko aukera, Udal Mediatekan edo Errotan.



Pasiñoa

:: DURANGO

Martxoaren 22, 24 eta 25ean

21:00etan, Durangoko Pasiñoa, Santa Ana plazan.



Erakusketa

:: DURANGO

MARTXOAN ZEHAR

Lorena Martinezen ilustrazioak, Arteka Liburu-dendan.

MARTXOAREN 20an

Komiki Azoka, Plateruenean.

MARTXOAREN 24tik 27ra

Topaklown jaialdirako, Aitor Audikanak egindako argazkiak, San Agustinen.

Aste Santuan

Durangoko prozesioen argazki zaharren erakusketa, Arte eta Historia Musean.



:: DURANGO | ZUGAZA

La modista

- **barikua 18:** 19:30/22:00
- **zapatua 19:** 19:30/22:30
- **domeka 20:** 18:45/21:00
- **astelehena 21:** 18:30/21:00
- **martitzena 22:** 20:00

El pregón

- **barikua 18:** 19:30/22:00
- **zapatua 19:** 18:30/20:30/22:30
- **domeka 20:** 18:45/21:00
- **astelehena 21:** 18:30/21:00
- **martitzena 22:** 20:00

Mustang

- **barikua 18:** 19:30/22:00
- **zapatua 19:** 18:30/20:30/22:30
- **domeka 20:** 18:45/21:00
- **astelehena 21:** 18:30
- **martitzena 22:** 20:00

Kungfu Panda 3

- **zapatua 19:** 16:30/17:00
- **domeka 20:** 16:30

Zootropolis

- **zapatua 19:** 16:30
- **domeka 20:** 16:30

:: ELORRIO | ARRIOLA

Pikadero

- **zapatua 19:** 22:00
- **domeka 20:** 20:00
- **astelehena 21:** 20:00

Tom txiki eta ispilu magikoa

- **domeka 20:** 17:00

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

Brooklyn

- **barikua 18:** 20:15
- **zapatua 19:** 19:30/22:00
- **domeka 20:** 20:00
- **astelehena 21:** 20:15

La novia

- **martitzena 22:** 20:00

Martxoaren 25ean, 20:00etan, Durangon

Teatro Indigesto

Iaz Valentziako antzerki jaialdian saritu zieten 'Podemos conseguirlo' antzezlanaren eskainiko dute Zaragozako Teatro Indigesto taldekoek, Durangoko San Agustinen. Topaklown jaialdiaren barruko emanaldia izango da martxoaren 25ekoa, adin guztietako ikusleentzako aproposa. Inprobisazioaren bitartez, Fundación Universal de Autoayuda delakoa aurkeztuko du aktore hirukoteak.



> **ZORION AGURRAK**

✉ zorionak@anboto.org
eguztazteneko 14:00ak arteko epea



> Neskatotxo polit honek 3 urtetxo egin zituen martxoaren 15ean. Zorionak, **Malen!**



> Gure etxeko piratak 4 urte egingo ditu gaur, Zorionak **Jon**, zure familiaren partez!



> **Iraiak** 6 urte bete ditu otsailaren 23an. Zorionak zure nebaren eta gurasoen partez!



> **Goizane**k 5 urte beteko dauz martxoaren 21ean. Zorionak!



> **Ainhize**k 9 urte egingo dauz domekan. Zorionak eta mosu bat etxeko danon partez.



> 从你的家人很多的吻。我们爱你 Askomaite zaitugu Txinito!



> **Markel**k martxoaren 22an 9 urte egingo ditu. Zorionak etxekoon partez!



> Martxoaren 21ean 3 urte beteko ditu gure etxeko txikiak. Zorionak **Aiur!** Muxu handi bat etxekoon partez.



> Trikitilari, hizkuntzalari, txispas... baina batez be lagun! Zorionak **Endika** eta eupada bat lagun partez!



> **Arantza, Martin** "Zorionak! Aurten be munduko beste puntatik ospatu dugu martxoaren 17a."



> **Jon Ander** kostata baina, azkenean, "doktore" bat etxean. Zorionak Bea, Marko eta Maddiren partez!



> Gure etxeko irrifarre polit hori ez dadila inoiz zure aurpegitik ezabatu. Patxo potolo bat **Maddi**.



> Zorionak, **Unax!** Otxandio, Durango eta Mañariko familiaren partez. Muxu potolo bat!



> Zorionak poxpolintxo! Sei urte bete dozuz. Mosu potolo potoloa **Haizea!**



Ermodo, 11
DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

f Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.

> **BOTIKAK**

BARIKUA, 18 09:00-09:00
Navarro Artekalea 6 - Durango
09:00-22:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
22:00-09:00
Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier Txiki Otaegi 3 - Zornotza
ZAPATUA, 19 09:00-09:00
Irigoien Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
09:00-13:30
Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango
Navarro Artekalea 6 - Durango
Bazan Diaz Uribarri 5 - Durango
Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango

Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango
De Diego Intxaurren 22 - Durango
Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango
Eguren, Isabel Trañabarren 15 - Abadiño
Jaio-Olabarrieta Errekakale 6 - Elorrio
Bartolome Gabiola 2 - Berriz
Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza
Guarrotxena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
22:00-09:00
Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier Txiki Otaegi 3 - Zornotza

DOMEKA, 20 09:00-09:00
Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango
09:00-22:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
22:00-09:00
Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier Txiki Otaegi 3 - Zornotza
ASTELEHENA, 21 09:00-09:00
Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango
Guarrotxena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
MARTITZENA, 22 09:00-09:00
Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango

Guarrotxena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
EGUAZTENA, 23 09:00-09:00
Bazan Diaz Uribarri 5 - Durango
Guarrotxena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
EGUENA, 24 09:00-09:00
Gaztelumendi J.A. Abasolo 2 - Durango
Guarrotxena, Lide Bide Zahar 14 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza



MIREN RODRIGUEZ

Gosaria: otordurik garrantzitsuen

Izugarri maite dugu gosaltzea, baina ez ditugu ongi aukeratzen goizeko lehen orduan jaten ditugun elikagaiak. Zenbait ikerlanen arabera, gure gosarien kalitatea nabarmen hobetu daiteke nutrizioaren ikuspegitik. Opilek leku handiegia hartzen dute, eta, berez, salbuespen gisa jan behar lirateke. Eguneko lehen otordua oso garrantzitsua da. Esaerak ere esaten du: "Gosaldu ezazu errege batek bezala, bazkaldu printze batek bezala eta afaldu eskale batek bezala". Baina komeni da ongi aukeratzea zer-nolako elikagaiak jarriko ditugun gosaritan.

Fruta zukua. Oso ohikoa izaten da gosaritan fruta zukua hartzea, batez ere etxean egina. Zukua maiz hartzeak, ordea, handitu egiten du gizentasuna izateko arriskua. Fruta zukutuaren azukreak oso azkar sartzen dira gure gorputzean eta, itxuraz, suspertu egiten dituzte gantzak metatzeko mekanismoak; horretaz gain, ez du eragiten elikagai solido batek eragiten duen asetasun bera. Horrela, bada, gosaritan egunero fruta pieza bat jatea da onena.

Esnea edo esnekiak. Gosaritan oso ohikoak izaten dira esnea, jogurta edo gazta. Ezinbestekoa al da esneki bat hartzea gosaritan? Ez, besteak beste ez dagoelako ordezkazina den elikagairik, amaren esnea ez bada. Baina, horrek ez du esan nahi kaltegarriak direnik, zenbait herritarrek uste duten bezala. Esnekiek ez dute handitzen bihotz-hodietako arazoak izateko arriskua, ezta minbizia eta beste gaitz kroniko batzuk izateko ere. On egin!

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK



Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

momotxo
t a b e r n a



Plateruen plaza, 12 DURANGO
Tel.: 946 811 006

“Bodegan porroiak baino ez zeuden sasoi batean; basorik ez zegoen ia”

Gurago izan dute Iurreta eta iurretarren argazkiak jarri, ezer esaten ez dien New Yorkeko argazkiak baino

> **AKUILUA** Aitziber Basauri Bederatzi urte dira Iurretako Bodega hartu zuela. Bodegen izaerari eutsi diote, eta kristalezko porroiak eskatzen duenik ere bada oraindik.

Extremaduran jaioa zara, baina, ia durangarra...
Bai, hemengoa naiz gehiago. Lau urte gaz etorri nintzen.

Bodegan egiten duzu eguna. Nolako bezeroa da iurretarra?
Oso ona! Oso ondo konpontzen naiz denekin, eta oso

pozik nago. Durangotik ere asko etortzen dira.

Aurretik ibilia zara tabernan?
Durango k o Uda-

berrin, 14 urte gaz; hiruzpalau urtean.

Lan gogorra da?

Bai. Pazientzia behar da. Jen-deagaz hartu-eman da onena. Txarrena? Denbora asko kentzen duela. Baina, gustura!

Ez da Cabarceno, baina, fauna zabala batzen da Bodegan?

Denetarik dago! (barrez): gazte, nagusi, Iurretan erro sakonak dituen, ez dituen... askotarikoa jendea. Baina, denekin ondo moldatzen naiz, ez pentsa!

Hamaiketako egitera etortzeko ohitura dago...

Beti egon da hemen Bodega, eta, lehen baino gutxiago, baina etortzen dira batzuk arrautzak txorizo edo urdaiazpikoa-gaz jatera.

Orduantxe duzu jenderik gehien tabernan?

Lehen bai. Ordu bata aldera batzen da jenderik gehien. Barikuan leher-tzeaz egoten da taberna!

Kristalezko porroiak ere badituzu bezeroentzat.

Porroiak baino ez zeuden lehen. Orain daude gutxien. Entzuna dut, eta ikusia ere bai, lehen denek porroitik edaten zutela. Basorik ez zegoen ia. Askarirako ere bai.

Askaria ere egiten dute?

Taberna hartu genuenean, bai; 17:30-18:00etan egiten ziren. Orain ez dira hainbeste egiten, baina, etortzen da baten bat.

Eskatzen dute porroia, beraz?

Bai. Baina, askok ja ez dagoela uste dute. Porroiak, atun pin-txoa... dauden galdetzen dute. Bai noski! Antxoak, sardinak... bistara zeuden lehen, orain ez.

Bodega izaerari eutsi diozue?

Bai. Ez dugu ezer kendu, gehitzen joan gara. Horma zikinak kendu ditugu; bestelakoan berdin dago (barrez). Sardinak, txitxarroa, antxoak, atuna, hirugiharra. Unean ateratzen da.

Argazkiz beteta dituzue hormak. Nondik dator ideia?

Iketzak, Katak... lagunduta, herriko argazki zaharrak jarri genituen. Orain urtebete, mural bat jarri genuen. Ezer esaten ez digun New Yorkeko argazkia baino gurago dugu.

Sanmigeletakoak eta inaute-rietakoak ere jartzen dituzue.

Geuk ateratzen ditugu, gero erakusteko. Denbora bat pasatuta kendu, eta bakoitzari berea ematen diogu. Atsegin dute; erakargarria ere bada. Telebistan ere eman ditugu inoiz.

Bartzelona zalea zara.

Futbola gustatzen zait, eta Barça egiten du futbolik onena. Txikitatik naiz zalea, eta orain, irabazi egiten dutenez, jarraitu egin beharko (barrez).

Euskaraz ikasten ari zara?

Nahiko nuke, baina, ez dut astirik. Bezeroek erakusten didate. Ulertzen dut, eta justuan hitz egin. Gaingitu gabeko irakasgaia da. Seme-alabei esan diet ez galtzeko.

LAUHORTZA

JON HARTZA

Soziologoa



Errefuxiatuak, beldurra eta ahuldadea

Siriatik eta Iraketik ahal duten moduan datozen errefuxiatuen aferra lotsagarria izaten ari da. Horretan, denok bat etorriko gara. Nola da posible Europar Batasunak hainbeste eragozpen jartzea, jakinik historian zehar milioika alemaniar, ingeles, irlandar eta espainiarrek beharrian bera izan dutela. Euskaldunok ere kanpora joan behar izan dugu, baina Europar Batasunean hutsaren hurrengoa garenez, ez dugu eragiteko ahalmenik. Bat-batean, bi ideia etortzen zaizkit burura:

Bere izena gogoratzen ez dudana idazle bati irakurri niona: sufrimendua, beharrian ez da orain dela hamarkada batzuk zena. Biztanle gehienek oinarriko beharrak aseak dituzte. Erosotasun horrek urruntzea eta enpatia eza dakar. Soilik, gizartean beti egongo diren talde eta eragile dinamikoetan ikus dezakegu elkartasun arrasto apurren bat.

Bestalde, Pepe Mugika Uruguako presidente ohiak Europa beldurri eta ahul bat irudikatu zuen duela gutxi. Historian zehar aitzindari izan den kontinentea, bere posizio pribilegiatua arriskuan ikusten duena, kanpotik etorriko diren “barbaro” prestatu eta gosetien beldur, XXI. mendearen hastapenetan politikoki eta intelektualki noraezean dagoena, enpresa eta kapital handien menpe.

anboto.org
MUGIKORREAN



Albisteak, agenda



Telefono gida



Parte hartu



Herriko informazioa jaso

Albisteak eta agenda, bizkor eta eskura.

Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.

Parte hartu, galderak eginez, erantzunak lortuz.

Pertsonalizatu, zure herria aukeratuz.

DESKARGATU DOAN !

